



## DROGAK, GERTUTIK

Herriko droga kontsumoaren gaineko begirada,  
testigantza desberdinak jasota **20**

*"Badakit  
beti  
alboan  
izango  
dudala"*

IRAKASLEA ETA  
GAES-ENKO BEZERRA



OMAN DELAS UPTEKOR  
HEKODIEN ALDIFONOTEREN

SUBENTZIONATUTAKO  
AUDIFONOAK  
**690€-tik**  
hasita

Konsumatzaile fisiko promozioko  
modoak zure Gaes zentrotan

[www.gaes.es](http://www.gaes.es)

 **GAES**  
Entzumen Zentroak

Foruen Ibilbidea, 8 • Tel.: 943 15 03 95  
azpeitia@gaes.es • AZPEITIA

Kanpaina martxoaren 24ra arte dago indarrean

# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 192.a (2017ko martxoa)  
**Urtea.** XVIII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685780412 /  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerro  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Eregi  
**Webgunea.**  
[www.uztarrria.eus](http://www.uztarrria.eus)

**Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**Oharra.** Uztarrriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

## ||| 2017KO MARTXOKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



### iritzia

**Inkesta.** Parte hartzen al duzu janari-bilketa solidarioetan? **13**

### mamia

**Elkarrizketa.** Efektu berezietako teknikari Mikel Herrerarekin solasean **04**  
**Klik!** Azpeitian bizi den Glyn Jones ingelesaren irudi bilduma **16**

### Nerea Odriozola eta Jorge del Cid.

Espainiako Lurreko Rallyen Txapelketan bigarrenak, badute zer kontatua **24**

### jakiteko

**Bestaldetik.** Lanetik kanpo ez da geldirik egoten Iñigo Iriondo **34**



**Ba al dakizu** urrestillako antxieta soziedadean Lehen emakume bazkidea onartu dutela? Uztarrria

## Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

**Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.




**Liburuxka biografikoak, oraingoz.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# MIKEL HERRERA

efektu berezietako teknikaria

## “Filmeetan ia gehiena izaten da faltsua”

‘Lasa eta Zabala’ filmean aritu zen aurrenekoz efektu berezietako teknikari, 2014an. Geroztik, gelditu ere egin gabe dihardu zinemagintzan.  Ainitze Agirrezabala

**A**ita eta osaba kamera eskuetan gogoratzen ditu Mikel Herrerak umetako oroitzen kutxan, eta haien afizioak “jakin-mina” betidanik piztu izan diola dio. Garbi zuen ez zuela Zuzenbidea, Ekonomia edo Historia ikasi nahi eta, Andoaingo zine eta bideo eskolan ikasketak egin ostean, eskuak gurutzatu gabe lanean dabil zinemagintzan. **Pablo Malo zuzendariaren ‘Lasa eta Zabala’ pelikula izan zen zure aurreneko lana, 2014an. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Nire lehen filma izanda, guztiarekin harrituta geratzen nintzen. Film labur asko eginda nituen ordurako, baina film luze bateko grabaketekin ez zuten zerikusirik.

Edozein lan berritan bezala, hasieran galdu samar nengoen, baina filmatze egun batek nola funtzionatzen duen ikustea, eta nire nagusiek eta lankideek nola lan egiten zuten ezagutzea gustua izan zen. Han ikasitako guztiak hurrengo filmeetarako balio izan dit. *Lasa eta Zabala* bezalako film berezi batekin hasi nintzen, eta nire karrera hasteko esperientzia ona izan zen. Film gehiagotan parte hartzeko gogoarekin gelditu nintzen.

**Efektu berezietako teknika zara. Filmatze batean zer da zure egitekoa?**

Film baten gidoia iristen zaigunetik grabaketak bukatu bitartean hainbat prozesu dago efektu berezien arloan. Hasieran, gure de-

### DATUAK

||| **Jaio.** 1994ko uztailaren 27an.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.**

Efektu berezietako teknikaria.

partamentuan lanak banatzen ditugu, eta, ondoren, produkzio zuzendariarekin bilerak egiten dira, aurrekontua adosteko. Baiezkoa jasotzen dugunean, lehen gauza lokalizazioa bilatzen hastea da, eta tokia dugunean beharrak aztertzen ditugu. Esaterako, filmazioa mendian bada eta haizearen eraginez zuhaitzek mugitu egin behar badute, efektua, dekoratua, azpiegitura... nola egin pentsatzen hasten gara. Lankideon artean ideiak azaltzen ditugu eta, aukera onena ikusten dugunean, lanean hasten gara. Filmatzeko garaia iristen denerako guztiak

prest egon behar du. Filmatzera-koan nire lana da egiten ari naizen efektua ondo egitea. Egoeraren arabera, ez ditut izaten aukera bat baino askoz ere gehiago efektu horiek ondo irteteko. Sekuentzietako *racord*-ak mantendu behar ditut; beraz, ezin zait ezer ahaztu.

**Pelikula baten grabazioaren atzean zer sekretu daude?**

Filmeetan ia gehiena izaten da faltsua. Fizkzioa dago guztietan, eta kameran ikusi dezakegunak ez du zerikusirik bertan, lokalizazioan, ikusten dugunarekin.

**Harrigarria da leku bat beste bat bilakatzeko egiten duzun lana. ‘Aundiya’ filmak, esaterako, 1866ko Londres bihurtu du Bilbo.**

Gaur egun, efektu digitalen ere



Mikel Herrera, 'Errementari' (Supervisor FX, 2017) film luzean, antortza eskuetan duela. ■ Mikel Herrera

garrantzia eta balore handia dute horrelako lanak aurrera ateratzeko. Bestela, diru aldetik ez litzateke posible izango halako bilakaketeak egitea.

**Andoainen ikasketak egin, Drama FX enpresan praktikak burutu eta bertan eskaini zizuten lana. Zure kasuan ezin esan zinemagintzan tokia egitea kostatu egin zaizunik.**

Ez. Egia esan, praktikak haiekin egin nituen, eta bukatu ondoren lan asko zutenez eta nire jarrera baikorra zela ikusi zutenez, bertan geratzea eskaini zidaten. Orditik gaur arte.

**Zinemagintzaren munduan zer da halako enpresa baten egitekoa?**

Gure enpresan efektu bereziak sortzen ditugu: euria, elurra, behe

lainoa, kea, eztandak, haizea, sua eta fikziozko objektuak. Armen ziurtagiriak ditugunez, haiekin ere lan egiten dugu. Horiez gain, batzuetan arte departamentuko lanetan ere aritzen gara, eta azkenaldian, berrikuntza bezala, hegaldi efektuekin hasi gara. Horretarako *rigging* sistema erabiltzen dugu, eta horrek aukera zabala ematen du: zintzilikatzeak, jauziak...

**Aktoreek, lanari dagokionez, segurtasun eza dute. Pelikula bat amaitu eta gero zer izango den ez jakitea, nola bizi duzue hori?**

Aktoreek ez dute ziurtasunik telesail batean hezuramaitzen duten pertsonaia kapitulu batean, bitan edo hirutan ariko den, edo film bat errodatu ostean lan eskaintzarik izango duten. Zentzu horre-

tan, gure lanarekin alderatuta ezegonkortasun handiagoa dute. Gehiago edo gutxiago, pelikula guztiek dituzte efektu bereziak, eta Euskal Herrian eta gure inguruan geurea da horretara dedikatzen den enpresa bakarra. Beraz, zortea dugu, Euskal Herriko pelikula gehienak eta kanpotik hona grabatzera datozenak normalean guk egiten ditugulako. FX enpresan lanean daramatzadan hiru urteotan bi-hiru hilabetez egon gara lanik gabe, pelikulen

ekoizpenerako diru-laguntzarik eman ez duten aldian, hain zuzen ere. Urtean, oro har, zortzi-bederatzi hilabetez ziur izaten dugu lana. Uztaila erdira arte lana egiten dugu, eta irailean ekiten diogu berriro lanari.

**Duela hiru urtetik zaude Drama FXen. Tarte horretan, zer lanetan hartu duzu parte?**

Film laburrak, dokumentalak, telebistarako telesailak, iragarkiak eta film luzeak egin ditut.

Advertisement for AIZPURU AUTOAK. It features a green background with a gear logo containing the letters 'FX'. The text 'AIZPURU AUTOAK' is prominently displayed in large, bold, black letters. Below it, smaller text reads 'PREBENTIBOITZAK'. At the bottom, there is contact information: 'Tel: 943 81 23 80', 'Fax: 943 81 22 81', 'aizpuru@aizpuru.net', 'www.aizpuru.net', and 'Arribas 17, 20738 AZPEITIA'.

### Bakarrarekin geratzekotan, zeinekin?

*Aundiya* filmarekin. Hainbat zailtasun izanagatik, egin dudan lanik potenteena eta interesgarriena izan da.

### Zuzendari eta aktore andana ezagutzeko parada izan duzu, beraz. Zer nolako harremana izan duzu haiekin?

Bai, egia esan, lan guzti horiek horretarako aukera ere eman didate. Jende eta lagun berri asko ezagutu ditut. Batzuekin harreman gehiago izan dut besteekin baino. Baina adin desberdinetako jendearekin oso ondo moldatzen naiz, bai teknikoekin eta bai aktoreekin.

### Zer eratako filmeetan gustatzen zaizu parte hartzea?

Akziozko filmeetan parte hartzea gustatzen zait. Nire ustez, mugimendu gehiago dago filmazioetan, eta gure arloan, oro har, lan gehiago izaten dugu.

### Zer nabarmenduko zenuke urteotan bititakoaz edo ikasitakoaz?

Azkenengo urtea, 2016a, izugarria izan da. Nire kabuz film handietara joateko aukera eman didate enpresatik, eta orain dela hiru urte pentsatuko ez nuen bezala, zailtasun denak barne, ederki eramaten jakin dut nire lana aurrera.

### Zer eman dizu zinemagintzak?

Esperientzia eta kontaktu zein lagun asko. Toki ezberdin asko ere ezagutu ditut, Espainia mailan ezagutzen ez nituen lokalizazioetan ibili naizelako. Film bakoitza mundu bat da, eta bakoitzetik zerbait berria ateratzeko aukera izaten dugu.

### Nondik datorkizu ikus-entzunezkoetarako, zinemagintzarako grina?

Familian, nire aita eta osaba kamera esku artean dutela ikusi izan ditut beti, eta niri horrek ere jakinmina pizten zidan. Horrez gain, betidanik gustatu izan zait zinemara joatea. Batxilergoa bukatu eta garbi neukan ez nuela nahi

Zuzenbidea, Ekonomia edo Historia ikasi; eta Andoingo ESCIVI zine eta bideo eskola ikusi nuenean, ez nuen bi aldiz pentsatu.

### Zer osasun du gaur egun zinemagintzak Euskal Herrian?

Euskal Herriko zinemak beti izan du garrantzia handia niretzat, baina azken urteotan gehiago nabarmendu da. Aurrekontu oso altuak dituzten filmeetan lehiatzen gara beti, baina mailak ez du dirua kontuan hartzen. *Loreak* filmaren Oscar sarietako izendapena ikusi besterik ez dago. Baita *Amama* pelikularekin 60 zinemaldi ingurutik egin duten ibilbidea ere. Askori dirua oso erraz iristen zaie, eta hemen, Euskal Herrian, horrenbeste gabe asko egiten dugu.

### Euskal Herritik kanpo inoiz lanik egin al duzu?

Bai. Espainian, Kantabrian eta Asturiaren filmatze asko izaten ditugu. Baita Madrilen eta Gaztela eta Leonen ere.

### Inoiz kanpora joatea pentsatu al duzu? AEBetara edo?

Bai, Ingalaterran efektu bereziak bi enpresa gustuko ditut, eta egunen batean haiekin lan egitea gustatuko litzaidake.

### 'Aundiya' eta 'Que baje Dios y lo vea' filmeetan aritu zara berriki lanean. Zer moduz filmatzeak?

Dagoeneko, amaitu ditugu biak. Otsail erdian grabatu ziren *Aundiya*-ko azken sekuentziak, eta bi filmak posproduzio fasean daude. *Aundiya*-n film osoan aritu



Goiko argazkian, 'Batallon Gernika' dokumentalaren filmaketan tiroen kea sortzen ari da Herrera. Sekuentzia hori Biarritzen egin zuten, 2015ean. Beheko argazkian, gauez 'Aundiya' pelikulan lanean iaz, Jaizkibelen. Sekuentzia horretan ere kea sortzen ari da Herrera. |||Mikel Herrera

naiz efektu bisualak egiten eta grabaketak gogorak izan dira, baina emaitzarekin oso gustura gelditu nintzen. *Que baje Dios y lo vea*-ren kasuan, filmeko sekuentzia gutxi batzuetan zeudenez efektuak, ez dut horrenbeste denbora pasatu grabaketetan. Kanpora irten beharra izan dugu, ordea, eta Espainiako hainbat tekniko eta aktore ezagutzeko aukera izan dugu; alde horretatik ere gustura nago.

### Aurrera begira ba al dituzue lan gehiago lotuta?

Orain, momentu berean hiru pelikulan lanean hastekotan gara. Hirurak hein handi batean Euskal Herrian filmatuko dira. Film horien prestaketa lanetan ari gara. Batzuetan dekoratu bat eraiki behar dugu; beste batean, berriz, pieza berezi bat eraiki behar dugu, eta ohiko efektuak egitea ere tokatuko zaigu. Telmo Esnalek zuzendutako *Dantza* lanean hil honetan hasiko gara filmatzen. Igor Lejarrera eta Emilio Perez zuzendarien *Cuando dejes de quererme* eta Antonio Cuadrik zuzendutako *Operacion Concha* pelikulak ere berehala hasiko dira filmatzen.

### Zinemagintzaren munduan nora iristea gustatuko litzazuke?

Efektu bereziak arduradun postura iristea litzateke onena. Eta nola ez, AEBetako film batean parte hartzea eskainiz gero, esperientzia izugarria izango litzateke, ni neu arduraduna izanda.

### Amesten hasita, zer zuzendarirekin lan egitea nahiko zenuke? Zer pelikuletan? Zein aktoreekin?

Amesten hasita, adibidez, Christopher Nolan, Quentin Tarantino eta David Fincher zuzendariekin lanetan bat egitea gustatuko litzaidake. Haiek zuzendutako edozein filmetan. Aktoreei dagokionez, berriz, Matthew McConaugheyrekin, Emma Watsonekin eta Ethan Hawkerekin egingo nuke lan.✱

# Izarraitz magalean

**M**endi magal harritsuak babesten gaitu edo gailurretik begira dugun Inaziok, sinesmenaran arabera hori ere. Eskura dugu mendia hain gertu, eta, tarteka, nahiko urrun. Ihes leku zoragarria izan da gutariko askorentzat Izarraitz, sarritan irtenbide, eta, askotan, motibazio aurrera jarraitzeko. Lotura geografikoaz gain, sentimentuz gogorturiko kate lodia da azpeitiarrok mendi horrekin duguna. Askotan joaten gara lasaitasun bila, isiltasun eskean, eta egun ez dugu entzuten fundizioko labearen hotsik.

Aspaldi hasi ginen Izarraitzen galtzen, horretarako aukerak ematen ditu txikia izanagatik. Hortan ere txikian handi. Eta txikitasun horrek eraman ditu urrutiko tontor altuetara hainbat mendizale fin. Beti ez dira denak gailurrera iritsi, hala ere, txunditu gaituzte haiek eginek. Mendizaletasunaren historian lorpen esanguratsuak eskuratutakoak izan dira Xoxote eta Erlo artean hazitako batzuk, ostera, beste batzuk hain gora iritsi ez garen arren, mendia izan dugu bizitza ulertzeko ardatz. Gurutza-tzen gara txarrak, onak eta erdipurdikoak Urretatik gora, eta maila kontuan izan gabe agurtzen gara.

Izarraitzen eraikiriko amets ugarik egin dute ihes norabide jakinik gabe. Harritzekoa dirudi, baina bizipozaren iturri dena ezingo genuke ulertu heriotzik gabe. Harriskuak gaintitzeak sentimendu itzela dakar berekin, eta, besterik gabe, horrek sortzen duena ederra da. Baina hutsuneek uzten dituzten itzalak arantza zorrotzak dituzte eta min sakona eragiten dute, hau da: zauriak eta orbainak; atsekabeak eta malkoak, eta beldurrak eta aingurak.

## Begiak zorrotzuta

Bakoitzak bere bizitzaren historia idazten du, lehen koadernoan eta orain Facebooken, eta, jakina, norberak izango ditu idazmahaiak Izarraitzen ere. Nireak kontatzeko beharra izateari utzi nionean hasi nintzen benetan go-




|||||||egoitz arruti|||||||

|||Hain jakintsuak ei gara, gero eta azkarrago, gehiago bizi nahi dugula, baina zertarako bizi mendirik ez bada?

zaten bazter kutun haietan. Leku horietakoren batera noanean askotan galdetzen diot nire buruari: zenbat animaliren begiak izango dira niri begira? Begiak zorrotzu, eta batera eta bestera zuzentzen ditut begiradak, horrela, batzutan orkatzak gurutzatzen zaizkit bidean, tarteka katagorriren batek zuhaitzari itzulika egiten dit ihes, ahaztu gabe salamandra hori eta beltzak, zozoak zein birigarroak abesten doaz hegan eta, ahaztu gabe, zomorroak.

Jarraituko dugu gizakiok bazterrek suntsitzen eta elkarren artean borrokan kasuan kasuko eztabaidak medio. Eraikiko dizkiogu atea eta leihoak, eta jarriko ditugu gurutzeak eta burdinezko oroigarriak. Beteko ditugu haren zuloak zaborrez, nonbaitean ezkutatu beharko baititugu gure gaitzak. Satortuko gara errepide azkarren tuneletan eta pasatuko gara zubi gainean tren azkarretan. Gertatzen dena gertatzen dela ere, egunen batean ez gara hemen izango. Azken finean, hain jakintsuak ei gara, gero eta azkarrago eta gehiago bizi nahi dugula, baina zertarako bizi mendirik ez bada?\*



# Haiek eta gu

**L**anera abiatu naiz autoz. Pazientziarekin hartuko dut ordubeteko bidea. Piztu dut irratia, eta Donald Trump-i buruz ari dira hizketan. "Haiek eta gu" diskurtsuoz, harreresiez eta sorterritik kanpo jaiotako pertsonen gaiztakeriaz, purua ez izateak dakarren zamaz. Egunero erakusten digute: sustraien jatorriak badu eragina bizitza eraikitzerakoan, eragina du migratzailearentzat eta baita ingurukoentzat ere.

Ohituta gaude goizero-goizero halako albisteak entzutera. Autoak ematen dizu patxadaz pentsatzeko aukera, errepide erdiko lerro zuriak atzean utzi bitartean. Burura etorri zait duela aste batzuk nola hitz egin zuten Begoña Huartek eta Amaïur Martinezekin zailak, Sanagustin kulturgunean. Greziako errefuxiatuei laguntzen dabilta haiek, eta gogorazi ziguten Europan ere badirela Trump batzuk. "Egunero hiltzen gara hemen", jarri zuen Martinezek errefuxiatuen hitzetan. Ekintzaileek azaldu zuten bidaia bat hasten dutela errefuxiatuek, nolabait, heriotzari ihes egiteko. Dena den, bukatu ezinezko heriotza prozesua aurkitzen dute. Gudara itzuli nahi zutenak ere ezagutu zituzten, nahiago zutelako hil aurretik bizi, hilez bizitzea baino. Hala-koetan galdetzen diogu geure buruari noiz utzi genion pertsona guztiak berdin ikusteari, eta noiz onartu genuen egoera hori "normala" dela. Halakoak pentsatzen ditugu errepideko marra zuriak igaroz, geure autoan eserita goazen bitartean.

AEBetatik at begira ere, ez dirudi europarentzat lehentasunezko gaia denik errefuxiatuena. Espainiako estatura begira ere jar gaitzke: hedabideetan dagoeneko indarra galdu dute Ceutako harresian gertatzen direnek. Eta hori ere bada harresia. Hor ere oso banatuta daude "haiek eta gu", eta pertsona guztiak ez dute berdin balio. 6.400 pertsonak igaro zuten Ceutako hesia 2016an. Bidaia luzea eginda, goseak eta beldurrak akabatzen, baina lehen unetik, gaizkile gisa.



eneritz albizu

||| Lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke Elkar-ekin taldeko kideek egiten duten lana eskertzeko

Gehitu horiei bidean gelditu zirenak. Hori ere ez dabil oso urrun Trump-engandik.

## Ladilloa

Autoan jarraitzen dut, istripu bat tokatu zait aurrean. Larria dirudi, eta ilarak sortzen ari da. Oraindik Azpeititik nahikoa hurbil nabil, eta beti sortzen da halako kezka bat: "Ezagutzen ote dut?". Hogei minutu geldirik. Irratian, hain justu, istripuaren berri: jatorri marokoarrek bi lagunek istripua izan dute GI-2634 errepidean. Hasperen egin dut, urrunago ikusi dut istripua. Etxekoekin eta lagunekin oroitu naiz, eta lasaitu egin naiz. Baina autoan nagoela, buruari bueltaka, pentsatu dut nire jokabide hau ere ez ote den, errepideko marra txuriak pasatu ahala, horren begi kritikoarekin so egin diodan jarrera. Pentsatu dut hori ere ez ote den "haiek eta gu" eta hori ere ez al den Trump-en ildoko sentimenduren bat. Horren zintzo eta koherente ere ez naiz.

Lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke Elkar-ekin taldeko kideek egiten duten lana eskertzeko. Azpeitiko plazara halako gaiak ateratzeagatik eta eragile lana horren txukun egiteagatik. Denentzako ari zarete lanean.★





#erronkarakoprest

GURE  
IKASLEEN  
AHOTAN

MARTIN ALTUNA Mondragon Unibertsitateko ikaslea

## “Diziplinar tekotasuna da gure ikasketen oinarria”

III Martin Altuna (Azpeitia, 1995) Lehen Hezkuntzako graduako 4. maila ikasten ari da, Heziketa Fisikoko espezialitatean, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzako campusean.

### Zergatik aukeratu zenue Lehen Hezkuntzako gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Graduaren hautaketa egiteko ez nuen zailtasun gehiegi aurkitu. Pare bat graduaren inguruan nuen interesa, baina, azkenean, irakasle izatea erabaki nuen. Mondragon Unibertsitatean ikastearen arrazoiak, aldiz, bertako metodologia eta

filosofia izan ziren. Batetik, talde lanari garrantzi handia ematen zioten, inguruko beste unibertsitate batzuetan ez bezala, eta hori asko interesatzen zitzaidan, irakasle batek etorkizunean besteekin elkarlanean ibili beharko baitu. Bestetik, euskarari eta euskal kulturari ematen zaion garrantzia erabakigarriak izan ziren.

### Nola definituko zenuke ikasketeko metodologia?

Berritzailea. Irakasle batek garatu beharreko konpetentziak garatzeko ibilbide esanguratsua egiteko aukera eskaintzen du. Gainera, ikasketa praktikoko asko egiten ditugu, eta hori oso aberasgarria da. Bes-

talde, atzerrian ikasketeko aukera ere eskaintzen du graduak, eta nire kasuan profesional eta pertsona moduan hazteko oso aukera eta bizipen aberatsa izan zen. Oro har, diziplinar tekotasuna da gure ikasketen oinarria, hau da, ikasgaiak ez ditugu bere horretan soilik lantzen. Nolabait esateko ikuspuntu global batetik ikasten ditugu materiak. Adibidez, ez dugu matematika edo euskara lantzen bere horretan, horiek modu ez-zuzenean lantzen ditugu materia ezberdinak eta andamiaje esanguratsu bat medio.

### Egindako proiekturen bat azalduko diguzu?

Aurtengo proiektu esanguratsuenetako bat izan da 4. mailan ibilbideko materia batean nire ibilbideari (Heziketa Fisikoa) lotuta egin duguna. Bertan, praktikaldian atzeman dugun erronka edo egoera hobegarri bati erantzuteko Sekuentzia Didaktiko bat sortu dugu. Egia esan, oso esanguratsua egin zitzaidan proiektua, errealitatearekin lotura zuzena zuelako eta egiten ari nintzen lan guztiak erabateko funtzionaltasuna zuelako.

### Praktikaldia non eta zertaz ari zara egiten?

Aurten praktikak Karmelo Etxegarai Ikastolan ari naiz egiten. Heziketa Fisikoaren arloan ari naiz gehien bat zentratzen, nahiz eta beste ikasgaietan esku-hartzeko aukera ere izan eta aprobetxatu dudana.

### Zer moduz moldatzen zarete talde lanean?

Ongi, nahiz eta zenbait taldekideekin arazoak edo desadostasunak sortu batzuetan. Halere, zenbat eta taldekide ezberdin gehiagorekin lan egin, orduan eta ikaste-prozesu esanguratsuagoa edukitzen dudala esango nuke.

### Zer asmo duzu etorkizunerako?

Ikasten jarraituko dut. Ez dakit ongi zer, baina posible da musikako espezialitateko ikasketekin jarraitzea. Bestalde, atzerriara joateko ideia ere badut buruan, baina hori egin aurretik lan egin beharko nuke.★

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)





## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



### GORA. Pagotxak, euskaraz.

Herriko saltoki honek likidazioan du negozioa, eta azken pare solteen berri emateko hainbat kartel jarri ditu erakusleihoan, euskaraz, noski! **Uztarria**



### BEHERA. Euskararentzat ere sarbidea debekatuta.

Erdikalean obratan ari dira, eta bete beharreko segurtasun arauen kartela gaztelania hutsean dago idatzita, euskarari ere pasabidea itxiz. **Uztarria\***



Jagoba Beobide.

### ESANA DAGO

“Maila bat behera jaitsi naiz berriz mailaz igotzen saiatzeko”

JAGOBA BEOBIDE  
Racingeko jokalaria

“Arrantzaleon gisan, arraina dagoen tokira joan behar dugu aktoreok”  
ALBERTO BERZAL  
Aktorea

“Interes handikoak dira kontsumoari lotutako erreportajeak”

ENERITZ FERNANDEZ  
Kazetaria ‘Equipo de investigacion’ saioan

“Zerua ezin da izan Arantzazu baino hobea”

NIKOLAS SEGUROLA  
Fraidea, artzaina...


**Aiertza Autoak**  
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA  
aiertzaautoak@telefonos.net  
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK\*  
**URBISTONDO MARGOAK**  
Salbe Auzunea, 35. behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

## Eskerrik asko, Valentina

**E**gia dela jakinda ere, sinestea kosta egiten da. Azpeitiko kale izendegian bakar bat ere ez emakume bati eskainia. Gizonak zer miserable izan garen (eta garen). Eta aurrenekoa nori eta Valentinari. Nire belaunaldi-koentzat, eta ondorengoentzat, ia seguru erabat ezezaguna. Baina aurrekoentzat ez. Gure etxean oso maitatua izan da Valentina. Besteak beste, irakurtzen ari zarena idatzi duen artapalaoa mundu honetara ekarri zuelako. Beno, aurreneko lanak Luixek eta Mariak egin zituzten, eta ondorengoak Mariak eta Valentinak. Orduan ere, lehendabiziko egu-

netik garbi erakutsi nuen nire izaera. Jaio ere presaka, bizi naizen tankeran, eta nire kintako ia denak jaiotzera Donostiara joaten bazin-ten ere, ni ez. Genetikoki erdi-xapo, erdi-aker, baina non jaio zalantzarik ez nuen. Azpeitian jaiotzeko ohorea izan eta Donostiara joan? Ez, ama, ez... ni etxean, Atxuiari, Azpeitian. Eta Valentinari esker, orduan komadronea eta orain emagin, mutil rubio eder askoa, azpeitiar peto-pettoa jaio zen. Eta badakizue, rubio mozkote hura hazi zenean, lanera joan eta Atotxako atek nork ireki zizkion? Valentinar-aren suhiak, Kororen senarrak, Ikerren aitak,



### txetxu urbieta

Iñaki Sarriegi on puskak. Ezer esan gabe, berehala jabetu zen kapitainaren herrikoa nintzela. Halakoa da bizitza.

Amaitzeko, bi kontutxo. Zenbat ote gara, geure erabakiz, herri kontsultarik gabe, herrian, eta zer herritan, Azpeitian, jaio garenak? Eta bestea, historia osoan hain miserable izan garen gizonak, saia gaitezen gure herria emetzen. Izenez eta izanez, emeki emeki, perfektotik gertu dagoen herria are osoagoa eginez. Pentsatzen hasita, imajinatzen duzue alkatea, erretorea eta medikua, hirurak emakumezkoak dituen Azpeitia? Eta zergatik ez!\*

### IKUSTEKO!



### ▲ UDALAREN KARTELA 'TUNEATUTA'.

Batzokiaren atzekaldeko pasabidean egotea debekatuta dagoela iragarri alkatearen aginduz Azpeitiko Udalak jarritako kartela moldatu egin dute baten batzuek. Aginduei, legee eta araei izkin egiteko a zer-nolako bidezidorrak aurkitzen dituen jendeak! 🗨️ Uztarria\*

## OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



### Herriko giltza bakarra

**AZPEITIA TXARTELA.** Aspaldian kexan gara poltsikoan plastikozko txartel ugari ibiltzen ditugulako: NA, gidabaimena, kredituzkoak, deskontu eta puntueta-koak... Edera herrian martxan jarri duten ekimena, herriaren giltza izateko txartel bakarra, bai kiroldegirako, bai liburutegirako, bai ordainketak egiteko... Nork daki aurrera begira, gainera, zenbat erabileraz izan ditzazken. Ondorengo pausoa, txartel fisikotik digitalera salto egitea. Animatzen?



alex silva



### Metalaren hotsa

**KALDEREROAK.** Orain urte batzuk hilda zegoen ekintza zela zioten askok. Beste askok, ordea, gogor egin zuten lan ohitura ez galtzeko, eta pozgarria da orain kaldereroen konpartsa bizi-bizirik dirauela ikustea. Karnabalen etorrera iragartzeko eta festa giroan murgiltzeko lapiko zaharren zaratez girotzen dituzte kaldereroek Azpeitiko kaleak, bejondeizuela eta urte luzez inauteriak iragar ditzazuela!



### Hobeto bizitzeko musika

**MUSIKOTERAPIA.** Udan izan nuen Juan de Antxieta Musika Eskolak martxan jarri asmo zuen proiektuaren berria. Musikak gozatzeko, aisialdirako, ikasteko... eta sendatzeko ere balio duela erakutsi dute hilabeteak pasatu ondoren. Proiektuak berak asmo terapeutikorik ez badu ere, musika une zailak edota gaixotasunak sortutako ondorioak

arintzeko erabiltzea da asmoa, eta argazkia ikustearekin ederki lortu dutela esango nuke. *Behin batian Loiolan, Maritxu nora zoaz, Mi carro...* edota horrelakoek gazte garaiako parrandak, berbenak, erromeriak, ligatze kontuak eta festa ekartzen dizkiete gogora; une horiek, berriz, eguna alaitzen laguntzen diete.★

## INKESTA

parte hartzen al duzu janari-bilketa solidarioetan?

✎ Ainitze Agirrezabala

BEATRIZ ARANBARRI

53 urte



“Bai, egiten dut nire ekarpena, supermerkatuan ez ezik herriko elikadura bankuan ere bai”.

MANU MELLADO

53 urte



“Herriar bezala ahalegina egiten dugu, ardura guztiona baita”.\*

Ingeleseko ikastaroak

\* Londres, Dublin edota Belfasten.  
\* Ingeleseko ikastaroak 6 eta 16 urte bitarteko haurren eta gazteentzat.  
\* Helduentzat: negozio edo astaldirako ikastaroak.  
\* Intrapraktika eskolak lurrezillan, helduentzat.

Tel: 943 81 5698

KIRURI

J A T E T X E \*

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tfnua: 943 81 5698

Faxa: 943 15 03 62

## ‘Go!azen’ fenomenoa

**H**aurrak edota nerabeak alboan ditugunontzat aski ezaguna da *Go!azen*, azken hilabeteotan gure haurrak zoratu beharrean baitabiltza ETBko produktu honen kontura. Telesaila eta biran dabilen antzezlan izugarritzko arrakasta izaten ari dira, telebista gainditu duen fenomeno bihurtuz. Baina zer dago fenomeno horren atzean? ETBko erreportaje berezian jardun zuten adituak ados ageri ziren: gauza positiboak ez ezik, hobetzeko asko ere badituela *Go!azen*-ek.

Alde batetik, telesaila musikala izanik, haur eta gaztetxoengan euskal musikarekiko interesa piztea lortu du. Hori gure ludotekan ere sumatzen dugu, *Euskararen txantxangorria* eta *Aldapan gora* abestiek *Reggaeton lento* eta horrelakoak atzean utzi baitituzte kantu eskatuen zerrendan. Txalotzekoa.

Bestetik, ETBk euskrazko produktu bat erdigunengan jartzea lortu dutela dio, haur eta gaztetxoentzat



chusemi vicente

eredu bihurtu dena. Euskararen erabileran eragina duen ondorioztatzeko goizegi izan arren, hainbat aktorek ematen duten eredia ez da batere aproposa. Ahizpa bikiak adibide hartuz gero, errealitate kezagarri batekin egiten dugu topo. ‘Twin Melodys’ ahizpa ordiziarren sare sozialetan sartzean euskarak presentzia eskasa duela agerian gelditzen da, azkenengo 50 argitalpenetatik 6tan bakarrik agertzen baita, betiere ingelesa eta gaztelanien atzetik. Hori al da nahi dugun eredia?

Baina telesailaren edukiez jardutean hasten dira kritikak. *Go!azen* estereotipoz eta klizez jositako produktu bat da. Pertsonaietan aniztasun falta handia dago, eta maitasun erromantikoa eta gizarteko kanon estetikoak telesailaren muina dira, egungo genero sistemaren indartzaile gisa arituz.

ETBko zuzendariak zin egin zuen eginiko ekarpenak hobetzeko baliatuko dituztela hurrengo denboraldirako. Badu nondik heldu.\*

galdetzen hasita, zenbat azpeitiarrek egingo dute osorik azpeitia-hazparne ibilbidea? ✎ Uztarria

## Karnabaletan ere aske

**B**eti bezala, gure Azpeitia maiteak primeran ospatu ditu Karnabalak. Gogon dut estreinakoz Azpeitiko inauterietan atera nintzen aldia. Duela bi urte izan zen. Frida Kahlo jantzi nintzen, badakizu, feminista handi bat omentze aldera. Izugarritzko festa izan zen!

Iaz ere Kahlo bezain moztro ona aukeratu nuen, eta Angela Davis hezurmamitu nuen. Aurreko urteetako mailari eustea helburu, aurtengo Karnabaletan zer jantzi pentsatzen hastean, ia konturatu ere egin gabe moztroen, festaren eta haietan emakumeak duen figuraren inguruan hausnartzen ari nintzen. Eta jabetu nintzen sarritan zer inkoherenteak garen, zenbait gauza argitan defendatzen ditugulako, baina gero haietaz ahazten garelako.

Askotan, parrandaren erdian, guztiak poza behar lukeenean, emakume askok ezin dute lasai gozatu, sexualki erasotuak direlako, ikutuak jasaten dituzte-

lako... Eta hori ez da batere atsegina. Esperientziatz diot, neure azalean bizi izan dudalako. Garrantzitsua da gogoraraztea moztrotzen zaren arren, edaten duzun arren eta gau batez nor zaren ahaztu arren, hurrengo egunean zu izaten jarraitzen duzula, eta berriro topatuko zarela jazarri zenuen edo zenituen emakume haiekin.

Guztion eskubidea da Karnabalak pozik eta aske bizi. Parrandan lasai eta eroso barre egingo dugun eta arazoetaz ahaztuko garen eta gozatuko dugun inauteriak bizitzeko eskubidea dugu. Bakarbakarik gogoratu zure aurrean duzun emakume horrek ere askatasuna eta ezetz esateko eskubidea ditu. Errespetatu ezazu eta jarraitu zure bidea. Neskak hausnarketa hori guztia guretzako ere bada.

Gozatu ditzagun festak gure herri honek, Azpeitiak, bakarrik bizitzen dakien bezala. Aupa azpeitiarrak!\*



linette montalvo

**TXU-TXU!  
AZPEITIKO  
MERKATARITZA  
SALBATZERA NATOR  
TXU-TXU!**



# Urteak eta urteak

**H**urritz, hemendik aurrera norbaitek zenbat urte dituzun galdetzen badizu hatz erakuslea jaso eta "bat" erantzun beharko diozu. Jaio zinen egunetik munduak eguzkiari itzuli bat eman dio eta jada zure bizitzaren zuhaitzak osatu du lehen eraztuna.

Begira, urteek ematen digute biziadiari neurria hartzeko bide bat. Uztaik zenbatuz, gai gara denboraren gurpilean marka biribildak ezarri eta aurrera egiteko. Joan doan zera hau batzuetan lauso samarra baita itsu-itsuka ibiltzeko.

Esaterako zuri begira daramadan denbora

tarte honek, lehen eraztuntxo horren tamainak, prentsan irakurri dudan albiste bat neurtzeko modua eman dit. Hilabete luzez zurrumurrua baino izan ez dena, mehatxu serio bihurtzeko zorian dela ematen du. Beste 16 zirgilo erantsi nahi dizkiote Garoñako zentral nuklearraren tximinia lodiari eta horretarako argi berdea dute Espainiako politikariek. 30 urterako ireki zuten eta martxan 46 urte eman zituen zentralari, beste 16 urteko bizialdi erantsia eman nahi diote. Eta denbora tarte horretan gertatu daitezkeen gauza guztiez pentsatzen jarri eta hezur-muinerainoko ho-

tzikara sartzea dena da bat. Aizu, 16 urte 16 hatz direla Hurritz! Ordurako bizarra kentzen hasita egongo zara.

Ez dira jolaserako gailuak zentral nuklearrak. Lehertu zen bat Txernobilen, bestea Fukushima. Eta denborari zedarriak jartzen ari garen honetan, toki horiek berriro inor bizitzeko moduko bihurtzeko 300.000 urte beharko direla jakinda, ez dakit zein buru gaixori otu daikiokeen Garoñako zentrala berriz ere irekitzea.

Hurritz, badakit!, aurtan pegatina bat egin-go dizut urtebetetzeko opari: "Nuklearrik? Ez, Eskerrik asko".\*



|||||||xabi borda||||

# Erotikan Plax!

**I**ñaki Amubietaren txanda da, hil honetako Erotikan Plax!-ean. **Lanbidez banatzailea zara. Zer duzu gustuko zure lanetik?** Nire erritmoan ibiltzeko aukera izatea, inoren kontrolik gabe. Eguraldi ederrarekin pasiera eginez banaketa egin eta jendearekin hartu emanean egotea ederra da, gustatzen zait neure lana.

**Atez ate joanda, hartu al duzu inoiz sorpresarik?**

Ez bereziki. Kamisoiarekin noizean behin bakarren bat. Egia esan atea ez da askotan irekitzen.

**Zer jasotzea dugu gustuko-en azpeitiarrok?**

Uztarria bera, esaterako.

**Zer banatzeak emango lizuke plazera?**

Bakoitzari zerbaite ematea: irribarre bat, hitz polit bat, begirada bat...

**Paperezko maitasun eskutitza edo emaila nahiago?**

Ohituraz, gaur egun, emaila. Email eder bat ere egin daiteke, hitz eta irudi ezberdinekin.

**Zure maitasuna ere jende askori banatzen diozu?**

## |||IÑAKI AMUBIETA|||

**Jaio.** 53 urte.  
**Herria.** Azpeitia.  
**Bizitokia.** Azpeitia.  
**Lanbidea.** Banatzailea.



Lanean saiatzen naiz horretan. Arreta eta garrantzia berezia ematen diot jendearekin sortzen dudan harremanari. Lanean dudan helburuetako bat da.

**Hainbeste banatzen duenak, hainbat jasotzen al du?**

Bai, bai, jendearekin beti jasotzen da. Jende ona topatu dut.

**Azkena banatutako udal aldizkarian Plax sexu eta bikote aholkularitzari buruzko informazioa banatu duzu. Zer iritzi duzu zerbitzuaz?**

Oso baliagarria eta interesgarria iruditzen zait, sexualitatearekiko dugun ikuspegi itxia eta tabuak gainditzen lagunduko du.

## |||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)|||



|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
[www.azpeitikoudala.eus/sexu](http://www.azpeitikoudala.eus/sexu) 688897920  
Hitzorduak, martxoan: hilaren 9an (16:00-19:00) eta 19an (10:00-13:00).

**Nola ikusten dituzu azpeitiarrek sexualitate gaian?**

Naturaltasuna behar dugu; kosta egiten da lasai hitz egitea. Gainera, oro har, neskek eta mutilek sexualitatea ezberdin bizi dugu.

**Sexualitateari buruzko nahiko informazioa banatzen duzula iruditzen zaizu?**

Ke! Ez, ez, informazio gutxi.

**Erotikarekin lotutako aldizkaria banatuko bagenu?**

Ez dakit prest gauden hori ondo bideratzeko, beldurra eta kezka nagusituko litzatekeela iruditzen zait.

**Janari goxo bat?**

Bonboiak.

**Oilo ipurdia jartzen dizun abesti bat?**

Benito Lertxundi oso gustuko dut.

**Gustoko txoko bat?**

Ernio.

**Oroitzapen polit bat?**

Errekan jolasean ibiltzen ginenekoa.



### ▲ AMA ETA ALABA.

Ingalaterrako Stoke-on-Trent herrian jaio zen Glyn Jones, 1980an. Mutil koskorretatik du afizioa argazkigintzarako. Irudian, bere ama Jane eta alaba Sara, Izarraiztik behera, iazko abenduan. Jane semea eta familia bisitatzera etorri ohi da urtero, gabonetan.

# Kamera eskuetan

Ingalaterrakoa da izatez Glyn Jones, baina duela zortzi urtetik Azpeitian bizi da. Argazkigintza pasioz bizi du. Hona, haren irudi batzuk. 📷 Glyn Jones 📌 Ainitze Agirrezabala

---



### ► AIETEN.

Donostiako Aiete parkean jasotako irudia da iragan urtarilean. Urmael bat, haitzuloak eta ur jauziak daude gune horretan, baita zelai berdeak eta lorategiak ere. Bertan, ehun zuhaitz eta landare espezie baino gehiago daude. Haietako bati ateratako argazkia da eskuinekoa. Argazkia buelta emanda dago, eta zuhaitzaren isla ikusten da erreka uretan.







### ▲ **ITSASOA HARRO.**

Goiko irudian, Debako kai-muturrean olatua lehertzen.

### ▼ ► **ELORRIAGA ETA DEBA.**

Ingalaterran ezagutu zuen egun bere emaztea dena, izatez urrestildarra. Duela zortzi urte, Erik semea jaio zenean, amaren aldeko familiak ezagutu zezan Azpeitira bisitan etorri eta bertan geratu ziren bizitzen. Bi urtera jaio zen Sara alaba. Semearekin izarrak ikusiz, Elorriagan gaua pasatzera joanda ateratakoa da beheko irudia. Eskuinetara, Debako haitzak.



### ▼ **UDAZKENA.**

Azpeitiko Argazki Elkartearen lehiaketan ere inoiz parte hartu izan du Jonesek. Lehiaketa hartako gaia udazkena izan zen, eta urte sasoi horren adierazgarri da Aratzerrekako errekan harri gainean pausatutako orbela.



### ▼ **AZPEITIA DANTZAN.**

Sahatsako dantzariak plazan prest, iazko uztailean.





**▲▼ HAN ALA HEMEN, BAINA AIRE GARBIA ARNASTUZ.**

Mendia eta hondartza. Eta lasaitasuna. Oro har, paisaiak iruditan jasotzea du gustuko Jonesek. Goiko argazkian, bera Xoxoten, eta behekoan, Zumaiako faroa, Orruatik aterata.



**D**roga kontsumoa errealitate ukaezina da gizartean. Legezkoak, legez kanpokoak edo bietatik, gehiago edo gutxiago, ia guztiok kontsumitzen ditugu. Droga kontsumoa 'arazo' hitzarekin lotuta joatea ere oso ohikoa da. Arazoak ekar baititzake –eta ekartzen ditu– drogen neurrigabeko edo kontrolrik gabeko kontsumoak, bai legezkoen eta bai legez kanpokoaren kasuan. Erreportaje honetan, Azpeitian legez kanpoko drogen kontsumoaren gaia jorratu nahi da, ikuspuntu desberdinak jasota. Kanean entzundakoaz eta ikusitakoaz dagoen pertzepzioaz gain, ordea, Azpeitiko asteburuetako edo egunerokotasuneko kontsumo datu askorik ez dago. Drogak hor egon dira, eta daude; jendeak erabiltzen ditu, eta erabilera horrek ondorio batzuk ekar ditzake.

### **Drogak aztertzeke zerbitzua**

Legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez, eskura dauden datu bakanak dira droga erabiltzaileen eta erabiltzaile ohien Ai Laket!! elkarteak, Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailarekin elkarlanean, iazko San Inazio bigarrenen eta santotomasetan jasotakoak. Egitasmoaren xedea da jai giroan dabilzan erabiltzaileen droga laginak aztertzea, droga erabilerarekin erlazionatutako arriskuak murrizteko.

Ai Laket!!-ek Udalarentzat egindako txostenean jasota dagoenez, bost pertsona aritu ziren lanean; bi furgoneta barruan, erabiltzai-



Pertsona bat sudurretik droga sartzen. |||Uztarria

# Errealitate ukaezina

Herriko legez kanpoko droga kontsumoaren gaineko begirada jaso nahi izan du Uztarriak, besteak beste, testigantza desberdinak jasota. 📧📞 Ainitze Agirrezabala



leek eramandako laginak aztertzen; eta beste hiru lagun karpan bertan aritu ziren, hurbiltzen zirenei informazioa eskaintzen eta arrisku murrizketarako materiala banatzen. Iazko saninazioetan eta santotomasetan ia 300 lagun joan ziren karpara. Une lasaietan inguruko kuadrilengana ere jotzen zuten zerbitzuaren berri emateko.

Zerbitzuaren bidez, erabiltzaileei erosi duten substantziaren lagin bat hartzen diete, eta hura aztertu ondoren, kontsumitzaileei jakinarazten diete haren konposizioa. Ai Laket!! elkarteak emandako datuen arabera, joan den urteko San Inazio bigarreanean 18 lagin analizatu zituzten, eta santotomasetan, berriaz, 21. Azken bi urteetako datuak alderatuta, aztertutako laginen kopuruak behera egin zuen iazko saninazioetan, 23 lagin azter-

tu baitzituzten 2015ean. Aitzitik, duela bi urteko santotomasetan 10 lagin analizatu zituzten.

Adinari dagokionez, Ai Laket!! elkartearen esanetan, iazko saninazioetan zein santotomasetan, bai karpa gunean eta bai analisi gunean, 25 urtetik beherako gazteak izan ziren nagusi. Generoari dagokionez, berriz, askoz ere gehiago izan ziren mutilak. Analisi gunean soilik %10 izan ziren emakumeak. Elkarreak adierazi duenez, "emakumeek zailtasun gehiago dituzte analisi zerbitzura hurbiltzeko, emakume erabiltzaileengan dagoen estigma eta erabilera isilarazteko joera handiagoa da".

### **Anestesikoa, albaitaritzan**

Iazko santotomasetan, analisi gunean 16 pertsonen eramandako substantzia kimikoak

aztertu zituzten, eta beste bost kalamuarekin joan ziren. Ai Laket!! Elkartearen esanetan, "azpimarratzekoa" da datu hori. Izan ere, kalamua izan ohi da "substantziarik analizatue-na", eta kasu hartan ez zen hala izan. Gainera, kimikoen artean anfetamina izaten da gehien analizatzen duten substantzia, eta 2016ko santotomasetan kokaina -9 lagin- eta ketamina -5 lagin- izan ziren aztertuenak.

Iazko santotomasetan burututako analisiaren artean ketamina bezala saldutako lagin baten kasua nabarmendu du Ai Laket!!-ek bere txostenean. "Erabiltzaileak ketamina zelakoan erosi zuen, baina lehen testean ikusi genuen ez zela ketamina". Ketamina substantziarekin azken urteetan hainbat alerta argitaratu ditu elkarteak; izan ere, ketamina gisa saldutako hainbat lagin azterketaren emaitzek agerian utzi zuten bestelako konposaketa zutela. "Bestelako substantzia horiek ketaminaren antzeko estruktura kimikoa dute, baina horien eraginak eta arriskuak oso bestelakoak izan daitezke. Arrisku nagusia da eragin ditzaketen ondorioak ezezagunak direla". Iaz, adibidez, ketamina gisa saldutako hainbat laginetan tiletamina substantzia aurkitu zutela adierazi dute. "Gaur egun, tiletamina albaitaritzan erabiltzen da animalien anestesiko bezala. Emaitza jakitean, Azpeitian lagina aztertzeraren eraman zuen erabiltzaileak adierazi zuen substantzia hura ez zuela kontsumituko. Are gehiago, bere lagina aztertu ostean, beste lagun bat ekarri zuen zerbitzura beste lagun bat aztertzeraren kasu hartan, laginak positibo eman zion ketaminaren printzipio aktiboari". Halako gertaerek "substantzia ilegalekiko arrisku pertzepzioa erreallagoa izaten laguntzen" dutela gaineratu du Ai Laket!!-ek, eta zentzu horretan, kudeatzeko orduan planifikazioak eta aurreikuspenak duten garrantzia azpimarratu dituzte.

Iaz, San Inazio bigarreanean 18 lagin aztertu zituzten herrian: hiru haxix analisi, marihuanaren bost, kokainaren lau, anfetaminaren lau (*speed-a*) eta MDMAren bi. Anfetaminaren eta kokainaren lagin bana laborategira bidali zituztela azaldu dute elkarrekoek, bi kasuetan bestelako substantziak ere aurkitu zituztelako.

Oro har, Azpeitian eskainitako zerbitzuaren inguruan "oso balorazio positiboa" egin den duela adierazi du Ai Laket!! elkarteak Udalarentzat osatutako txostenean. "Azpeitia herri txikia izanagatik, programak arrakasta izan du, jende askok erabili baitu zerbitzua San Inazio bigarreanean ez ezik santotomasetan".

Legez kanpoko drogak kontsumitu dituzten hiru herritarren bizipenak ere jaso ditu Uztarriak erreportajea:

## TESTIGANTZA 1

|||Adina. 31 urte. |||Sexua. Gizona.

### “Paranoiekin hasi nintzen”

“16 urterekin hasi nintzen haxixa kontsumitzen. Hasieran, ez nuen asko erretzen, baina 20 urterekin egunean sei-zortzi porru erretzera heldu nintzen; eta asteburueta hamar bat bai. Adin horretan lanean hasi nintzen, eta baita *speed-a*, MDMA eta kokaina kontsumitzen ere. Pastillaren bat edo beste ere probatutakoa naiz. Haxixa eta marihuana egunero kontsumitzen nituen; gainontzekoak, asteburueta. Lana egin eta irabazten nuena xahutzen nuen.

Astebururako generoa prest izaten nuen, ostegun alderako inguratuta. Ostiral arratsaldean lanetik ateratzerako, lankide bat eta biok lantokian bertan hasten ginen kontsumitzen. Zapatu goizean egundoko *puestoia*-rekin joaten ginen lanera, eta lo ez hartzeko segi egiten genuen hartzen. Gero, lanetik atera eta zuzenean juergara joaten ginen. Txixarron-edo ibili, eta igandea lantokian marraz hartzen pasatzen genuen, musika jarrita. Lo asko egin gabe joaten nintzen astelehenean lanera. Eta astelehena lana bukatu eta tailerretik ateratzeko amorratzen pasatzen nuen, etxera joan, eta afaldu ere egin gabe zuzenean ohera joateko.

Noiz edo noiz pentsatu izan nuen: ‘Hau duk desgastea ekarri behar diguna honek!’, baina inguruan lagunak ikusten dituzu hartzen, eta ‘beno, ez duk horren txarra izango’, pentsatzen duzu. Izaera lasaia dut, eta porruak erretzeak ez zidan urduritasunik eragiten. *Speed*-ak eta horiek bai, bihotza bizkortzen zidaten. Ostiralean juergan hasi eta jai gauera arte ibiltzen ginen, eta behin, igande gau batean, etxera ailegatu eta sarreran ziplo erori nintzen.

Esperientzia hura eta gero, diskoteketara joateari utzi nion, lagun giroa ere pixka bat aldatu nuen, eta drogak utzi nituen. Baina marihuana erretzen jarraitu nuen, eta paranoiak izaten hasi nintzen. Egun batean, paranoien-gatik liskarra izan nuen lanean, ertzainei eta anbulantziari deitu behar izan zieten ni artatzeko. Orduan jabetu nintzen mendekotasuna nuela. Etxean amak-eta inoiz ez dute jakin izan drogak kontsumitu izan ditudala, baina

## |||DROGAK, ZENBAKITAN|||

Ai laket!! Elkarrekin herrian eskaintako zerbitzuan jasotako datuek diote:

**18** lagin. Iazko San Inazio

bigarrenen analizatu zituzten substantzia kopurua da: hiru haxixa analisi, marihuanaren bost, kokainaren lau, anfetaminaren (*speed-a*) lau eta MDMAren bi lagin aztertu zituzten. 2015eko saninazioetan, berriz, 23 lagin aztertu zituzten.

**21** lagin. 2016ko

santotomasetan kokainaren 9 analisi egin zituzten, ketaminaren 5, kalamuaren 5 eta anfetaminaren bi. 2015eko santotomasetan, berriz, 10 lagin aztertu zituzten.

**25** urtez azpikoak. Iazko

saninazioetan zein santotomasetan, bai karpagunean eta bai analisi gunean, 25 urtetik beherako gazteak ziren nagusi.

**%10** emakumeak. Askoz ere gehiago ziren mutilak. Analisi gunean soilik %10 izan ziren emakumeak.

paranoiekin hasi nintzenean neuk kontatutako arazoa nuela. Marihuana erretzeak ez zidan onik egiten, eta inongo zentrotara, Gizakia Helburu Proiektura edo kartzelara joan gabe, kostata baina ahalegina eginda, gauza izan naiz neure kabuz dena uzteko. Azken porrua duela urtebete erre nuen; *speed-a* eta MDMA, berriz, duela lau bat urte hartu nituen azkenekoz.

Haxixaren usaina asko gustatzen zait, eta oraintxe gustura erreko nuke, baina nahiko ondo heltzen diot tentazioari. Juerga, berriz, oso noizbehinka egiten dut, hilean behin-edo, eta ez dut tentaziorik izaten *speed-a* eta hartzeko. Tabakoa erretzen dut, puru txikiak ere bai, eta edan ba lejia edo zerbeza. Anbulatorioko osasun mentalean egiten didate jarraipena eta drogek utzitako hainbat ondorio arintzeko sendagaiak hartu beharra ditut.

Kontsumitzen aritu nintzen garaia luzea eta txarra izan zen. Lagunekin egondako euforia momentuak eman dizkirate drogek, bai, eta

barre asko egin dugu, baina ez dakarte mesederik. Lehen lan normalizatua nuen, eta egun lanik ez dut, baina gai naiz eta esperantza dut lanean hasteko. Hobe da drogak lehenbailehen uztea. Orain bizi hobea dut”.

## TESTIGANTZA 2

|||Adina. 47 urte. |||Sexua. Gizona.

### “Eusten diot tentazioari”

“13 urterekin, Eganen garai haietan probatu nuen aurreneko alkohola. Landetako edo Loiolako festak ziren. 15 urterako, ordea, asko edaten nuen, whiskya, martini botila... Gero, arazo handiak izan nituen drogekin. Denetik sartu nuen: erretzeko txokolata eta belarra, anfetaminak, kokaina, zaldia, tripiak, pastilla kimikoak eta inhalatzaileak. Arazo handiena heroinarekin izan nuen. Oso garai txarrak ziren, eta galdu egin nintzen. Azkenean, Azkoitiko lagun batek hala esan zidan: ‘Edo joaten haiz sendatzera edo ostiatu egingo haut’. Behartuta, 18 urterekin ingresatu ninduten Gizakia Helburu Proiektuan, eta ia hiru urte egin nituen han.

Nire izaeragatik, ezetz esateko ahuldadea beti izan dut. Bakoitzak ditugu geure arazokak, eta horiei aurre ez egitearren, norbere burua ezkatuzeko eta errealitatearekin ahaztu nahi nuelako, babes bezala, edanari ematen hasi nintzen 18 urterekin. 44 urtera arte egunero edan dut. Atera kontuak! Engantxatuta egon naiz, eta autoak gasolina nola, nik alkohola behar nuen. Goizetan dardarka jaitkitzen nintzen, eta ezertan hasterako alkohol dosia behar nuen, lasaigarri bezala. Baraurik hiru whisky edan eta azkurarik ez zidan egiten.

Nondik ateratzen nuen dirua? Ez zen lehen drogekin-eta bezala, lapurretara edo trapitxeora jo beharra. Gastu gutxiagoa du alkoholak, baina, batzuetan, ez duzu dirurik, eta, ‘beno, bihar pagatuko diat’ esan, eta hurrena dirua zuzenean aurreko egunekoak ordaindu, eta beste bi hartu eta...

Edanaren ondorioz, egunerokoan arazo pila bat nituen familian, lanean... Familiak hamar mila aldiz esaten zidan, baina ez nien kasurik egiten. Jabetzen zara min egiten duzula, baina hain zaude hondoratuta, ez duzu indarrik, ez zitzaidan ezer ere axola. Igoal, jaitkitzen nintzen goizean 05:00etan halako herritako taberna batera edatera joateko, edo whiskya edo txakolin botila hartzen nituen garajetik, eta badakizu jarrera hori ez dela nor-

mala, eta arazoa duzula, baina ez zaizu axola. Gerora, edatea laga ondoren, konturatzen zara zenbat min egin duzun. Zeure buruari lehenen, baina baita inguruko guztiei ere. Eta, noski, jendeak barkatzea kostatu egiten da, askotan zeuk ere ez diozu-eta barkatzen zeure buruari. Baina ezin naiz atzera begira geratu, ezta? Alkoholarena ez da izan lehenbiziko zuloa, beste batzuetatik ere atera naiz, beste batzuk ere azalduko dira igoal, eta berriro hanka ez sartzea da kontua.

Drogekin bezala, alkoholarekin ere, behar egin ninduten lagatzeraz. Gisa hartara ezin nuela segi, eta bi lagunek eraman ninduten Udaleko Gizarte Zerbitzuetara. Gizakia Helburu Proiektuan ingesatu ninduten berriz, eta asko lagundu didate. Jotzen hasita, ate guztiak jo nituen: apaizarengana joan nintzen, Gizarte Zerbitzuetara, Alkoholiko Anonimoetara ere egunero joan nintzen urtebetez, harik eta kaskarrean sartu arte.

Familiak lotsa sentitu du nirekin, lagunek ere bai, eta neuk ere bai neure buruarekin. Batzuek ez ninduten ikusi ere egin nahi. Baina ez dut orain horretan trabatuta geratu nahi. Pentsatzen dut denok ditugula arazoak, denok ditugula lotsatzeko arrazoiak, barkamena eskatzeko arrazoiak eta barkatzeko arrazoiak. Neure burua oso ondo ezagutzen dut, eta badakit ez naizela pertsona txarra, gaiztoa. Barkatzen didanak ondo, eta lotsatzen dena ba...

Urtarrilean hiru urte bete dira azken tragoa hartu nuela, eta edateari utzi nionetik etxekoekin harremana ez da etxafuegoak botatzekoa, baina bai garbia. Lehen ez bezala, laguntza eskatzen didate orain, eta nigan konfiantza dutela sentitzen dut. Egunero ahalegintzen naiz besteengan gehiago pentsa-

tzen, eguneroko arazoei aurpegia ematen, beste segurtasun batekin. Eta gauzak garbi. Gezurra asko ibili dut. Gaur egun, nahiz eta mina eragin, nahiago dut egia esatea gezurretan aritzea baino.

Oraindik ere tentazio asko izaten dut edateko. Askok. Azkena orain egun gutxi. Bazkaria genuen, ardoa zegoen mahaian; gero, kopak azaldu ziren, patxarana, whiskya. Baina eusten diot. Batzuetan pentsatzen dut: 'Bategatik ez da ezer ere gertatuko'. Baina nire filosofia da lehenengoa ez badut hartzen ez dudala azkenarekin mozkortuta bukatu behar. Nahiz eta zenbait momentutan berotuta egon, hotzean pentsatu beharra dago. Indartsu nago, baina errespetu handia diot. Badakit zer den. Badakit zer egin behar dudun. Nire esku dago. Ezin naiz galdu.

Kristorenak harrapatu ditut, baina edanak eman eta kendu didanaz hausnartu, eta txarra gehiago da. Alkoholak markatu egiten zaitu. Bide batera behartzen zaitu. Aukera asko galtzen dituzu. Pertsona baliogarria, azkarra... izan zaitezke, baina edanaren kontra beti galduko duzu. Beti. Alkoholak ondorioak utzi dizkit osasunean, gizarte mailan, emaztearekin... denean.

Nik ez dut esaten alkohola txarra dela. Ez. Alkohola txarra da txarra denean, arazo bihurtzen denean. Eta askori nahigabe bihurtzen zaigu; beste batzuek alkoholarekin ez dute arazoa, jokoarekin dute, egiarekin eta gezurrarekin. Baina kontsumoarekin arazoak dituenari esango nioke bere buruarekin zintzoa izateko, ez engainatzeko norbere burua eta onartzeko arazoa duela. Hortik hasi behar da. Ez dago besterik. Frenoa bota behar da, hausnartu noraino duzun arazoa, zergatik den, eta umiltasunez laguntza eskatu.

## TESTIGANTZA 3

|||Adina. 43 urte. |||Sexua. Emakumea.  
“Zentzuz jokatu behar da”

“Lagunartean kalera ateratzen hasi eta adin horretako gazte gehienek egin ohi duten bezala, 15 urterekin probatu nuen aurrenekoz alkohola. Adin hartan hasi ginen lehen zigarrak erretzen ere, eta, ondoren, haxixa ere bai. 17 urterekin, asteburuetan parrandara ateratzen hasi nintzenean, *speed*-a kontsumitzen hasi nintzen. Lagun baten bidez lortzen genuen, gurasoen eskupekoarekin. Hasieran, noizik eta behin kontsumitzen nuen *speed*-a, festetan eta. Baina, 20 urtetik aurrera, 25 urterekin-eta, astebururo sartzen nuen.

Izaera irekiko pertsona naiz, jendearekin harremanak izateko ez dut inoiz arazorik izan, baina *speed*-a kontsumituta sentsazio berriak bizi izan genituen. Gainera, lagunartean hartzen genuen eta 'bidaia' ederrak esperimentatu genituen. Behin, ordea, esperientzia txarra bizi izan nuen kalamuarekin eta tripiarekin. Drogak hartuta mundial pasatu dugu, bai, baina bestelako zoritxarrak ere eman zizkiguten drogek. Kontsumoaren ondorioz, hainbat lagunek bizia galdu zuten, eta momentu haiek benetan latzak izan ziren.

Ezkondua naiz eta familiako ama, eta gaur egun ere urteko festa egun jakinetan parrandara ateratzen naizenean, kontsumitzen dut droga. Beti kontsumitu izan dut zentzuz, jakinda zer hartzera noan. Seme-alabak hazten direnean ez nago ziur zer mezu emango didan. Izan ere, gizartean dauden errealitatea dira drogak, baina garrantzitsua da haiei errespetua izatea eta zentzuz jokatzeara.”

**BIYONA**  
BERRIKUNTZAK-REFORMAS  
[www.biyona.net](http://www.biyona.net) / [biyona@biyona.net](mailto:biyona@biyona.net)

Etxebizitza  
zaharberritzea  
nahi duzu?



Erositako etxebizitza  
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua  
Gremioen koordinazioa  
Epeak betetzea  
Erakusketa handiak


Abendafu poligonak, 2  
Tel. 943 185 016  
Zarauz

Santiago ezua, 12  
Tel. 943 145 443  
Zumal

San Juan, 16 edif. AXRU  
Tel. 943 892 100  
Azkoitia

Geologia Kalea, 18  
Tel. 943 149 241  
Zestoa

# Mendekotasuna, langai

**Droga kontsumoaren errealitateari lotutako prebentzio eta gizarteratze plana herrian hainbat eremutan zabaltzen du Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak.**  **Ainitze Agirrezabala**

**D**rogen kontsumoak kezkatuta, urteak dira Azpeitiko Udalar Drogamenpekotasun Plana mar txan jarri zuela, eta haren barruan Eusko Jauriaritzak duen VI. Mendekotasun Planean agertzen diren ildo nagusiak jorratzen ditu: prebentzioa, asistentzia eta gizarteratzea. Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikari Ainhoa Etura-

ren esanetan “une honetan garrantzitsuena prebentzioa” da, eta gaineratu du 2015-2019 eperako onartutako plana “egun go errealitatera egokitu” dutela, “teknologia berrien erabilerari eta ludopatiari ere aipamena” eginez.

Droga kontsumoaren errealitateari lotutako prebentzio eta gizarteratze plana herrian hainbat

eremutan zabaltzen dutela adierazi du. Esaterako, familietan esku hartze psikosoziala egiten dute, guraso eskolak ematen dizkiete, festetara begira Sasoian eta Ai Laket!! prebentzio planak dituzte edota herriko ikastetxeetan –hasi HHTik eta Batxilergo- eta Azkoitiko erdi mailako zikloan adikzioen eta elkarbizitzaren programa zabaltzen dute.

Une honetan, droga kontsumo arazoengatik Gizarte Zerbitzuetara jo duten “gazte gutxi” dituztela dio Eturak, baina haren esanetan gazteek drogak kontsumitzen dituztela “gauza jakina da”, eta “beharrezkoa da begiak zabaldu eta instituzioek, gurasoek, irakasleek... elkarrekin hausnartzea eta lana egitea. Garai batean, batez ere, desegituratutako familietan kontsumitzen zen, baina egun familia arruntetan ere badago arazoa”.

Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu Estitxu Elduaienek ere adierazi du drogen kontsumoak “berezi” kezkatzen duela Udala,

eta “ezinbestekoa” dela “gaiaren inguruan kontzientziarazioa, informazioa eta ardura sustatzea”.

## **Ikastetxeen jarrera ona**

Izar Arregi psikologoak ikastetxeetan ikasleekin zuzeneko saioak egiten ditu eta irakasleei formakuntza eskaintzen die, duela hamar urtetik, Azpeitiko Udalarren Drogamenpekotasun Planaren baitan. Arregiren esanetan, saioen helburua da “Azpeitiko gazteak bizitzako trebezieta eta emozioen kudeaketan garatzen joateko estrategia orokorrak barneratzea”. Droga motak, sexu harremanen eta droga kontsumoaren lotura, lagunarteko harremanak eta familia estiloak aztertzeaz gain, horien aurrean bakoitzak izan ditzakeen emozio kontrajarrrien lanketa ere egiten dela azaldu du. Droga prebentzioa lantzeaz gain, ordea, “egun gizartean hainbat gaixotasun indarra hartzen” ari direla nabarmendu du, eta horien prebentzioa ere lantzen dute, hala nola jokoan menpekotasuna, janariari lotutako gaixotasunak edota depresioa”.

Zentzu horretan, Arregik dio “txalotzekoak” direla herriko ikastetxeek programan parte hartzeko duten “prestutasuna” eta Udaleko Gizarte Zerbitzuen prebentzio programa, ikastetxeetan eta Gizarte Zerbitzuetan lantzen dena une oro lotuta baitaude.✘



Ainhoa Etura eta Izar Arregi.  Ainitze Agirrezabala

**KIMU BAT**  
GARDEN

KIMU BAT 25 urte  
Urrestilla bidea, Azpeitia  
943 15 00 85

# Ez deitu desegoki gehiegikeriei

**J**esuiten barnetegiko sei urteetatik gutxi daukat esateko gaueko kontuez. Lo egiten nuela, kontzientzia txarrak eta errezo osagarriren bat egiteak lo hartzea berandutzen zidan batzuetan, alferkeria izan ohi nuen pekatua, eta behin, gure pozerako, kolegioak su hartu zuela baina ez zela erre. Horixe. Bada kontu bat ama zenak gogorarazi zidana. Behin kontatu omen nion matematika irakasleak mutikoak lo geunden kamariletara igo eta, Perez Plumedi, Terueleko ikaskideari pijamapea arakatzen ziola gantzontzilorik gabe lo egiteko arau higienikoa urratzen ote zuen jakiteko. Geroztik beldur izaten omen zuen amak. Ohiko matematikako kalabaza jasotzeagatik edo, inoiz edo behin, aprobatzeagatik. Akabo! Pentsatzen omen zuen. Ni galderaren maliziaz jabetu gabe galdetu ere egin omen zidan zer izan Terueleko hartaz. Udako oporren ondoren ez zela kolegiara itzuli erantzun omen nion.

Dibujo irakaslearena ez zen gaueko kontua, egunekoa baizik. Melarra eta azal berdotzeko zen, apala, tentea, hizkera eta esku eta behatz mehekoa. Marrakia erakustera joaten nintzaion bakoitzean igurzten zidan bere aldera neukan izterrondoa behetik gora, ia goraino. Kariño gehiegitxoa iruditzen zitzaidan, gurasoek ez beste inork eman ziezadaketanaren parekoa, baina ez nintzen kapaz izan, mozoloa, kariñotik haragokorik sumatzeko.

## Aita Gaztelumendi

Azpeitia aldeko ikaskide asko bezala, aita Gaztelumendirekin konfesatu nintzen euskaraz egitearen kariaz. Bere gelan husten genituen pekatuak. Bera eserlekuan eserita bizkarra paretari emanda eta gu, ni behintzat, bere parean, erreklinatorioan belauniko, paretara aldera begira. Bere burua nire sorbalda-  
ren kontra, nire lepoa bere besoek inguratua eta ia makurrarazia, nire buru, ez txikia, bere saihs eta izter alboen kontra estutua, eta



ramon etxezarreta

||| Nire lepoa bere besoek inguratua eta makurrarazia, nire burua bere saihs eta izter alboen kontra estutua...

sermoietan trumoi ahotsa zirudien hura erabat otzandu eta bigundua, samurretan urtua, errezoetan gurindua, hasperentsu, dardarti, sotana gainera jauzten zitzaizkion buruko zoldak ere herio dantzan... nola jartzen zen gizona! Inoiz ez zitzaidan bururatu piura horretan jartzea santutasun eta zintzotasun neurrigabekoagatik izan behar ez zuenik.

Ez dakit pasadizo haiek markatutako traumadun pertsona naizen. Ironia eta distantzia traumak badira, bai. Haiek gertaera desegokiak ziren, bai. Ez dakit, ez eta ere, ukituen kasuan desegoki adjektiboa ote den hitza. Sexu kontuetan daukagun desegokiarena begirada da, kitzikatu egiten gaitu auziak. Desegokia dena ez da sexua, desegokia da menpekkoa, gaztea, nerabea, emakumea, indar gabea, sexu edo edozein jardunera, aktibora edo pasibora, kontzientera edo inkontzientera makurraraztea. Alor zibilean, herritarrean, gehiegikeria delitua da.✘





# NEREA ODRIOZOLA - JORGE DEL CID

Espainiako Lurreko Rallyen Txapelketan bigarrenak

“EZ genuen espero azpitxapeLdunak izatea”

Hamasei urte elkarrekin leihatzen aritu ostean, zailtasunak zailtasun urteetako lanak fruitua eman die Nerea Odriozola eta Jorge del Cid bikoteari. 📌📷 Nora Alberdi

**N**erea Odriozolak eta Jorge del Cidek aurtengo Espainiako Lurreko Rallyen Txapelketako denboraldiko puntu guztiak gehituta, bigarren postua lortu dute. Nahiz eta sailkapen orokorreko bigarren postua galtzeko zorian egon, azken esfortzuak saria izan zuen.

## Noiz ekin zenioten Rallyetan parte hartzeari?

Nerea Odriozola: 2000. urtean ezkondu ginenean lagunek kotxe bat oparitu ziguten lasterketetarako prestatuta, eta hori izan zen bultzada eman ziguna elkarrekin lasterketen munduan barneratzeko. Hala, duela hamasei urte hasi ginen biok batera, 2005ean.

## Nondik datorkizue auto lasterketen afizioa?

Jorge del Cid: Jaio nintzen unetik, nire aitona eta aita auto lasterketan ibiltzen ziren, eta horren ondorioz niri ere afizioa sortu zitzaidan. Txiki-txikitatik bizi izan dut etxean rallyen inguruko grina.

Odriozola: Nik ez dut etxean bizi izan. Lagun batzuk lasterketetarako beharrezkoak zituzten papearak eta administrazio kontuak ematen nituen baina parte-hartzea ez zen nire burutik pasatzen. Baina, gero Jorge ezagutu nuen, eta bulego lana egitetik autoarekin lehiatzera igaro nintzen.

## Afizioa soilik da ala ofizio bihurtu da?

Del Cid: Afizioa bakarrik da, profesionala izatea oso zaila da. Oso jende gutxi dago munduan auto lasterketetan aritzea ofizio duena.

## |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** Odriozola: 1977ko maiatzak 22. Del Cid: 1974ko maiatzak 14. |||**Herria.** Azpeitia eta Gasteiz. |||**Bizi tokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.**

Dentistaren kontsultako langilea. Autoen garajeetako programa baten arduraduna.

Nereak dentistaren kontsulta batean egiten du lan, eta ni autoen-garajeetako programa bat eramateaz arduratzen naiz, horren bitartez kontabilitatea eta biltegia kontrolatzen ditut.

## Lan handia eskatzen al du maila horretan lehiatzeak?

Del Cid: Bai. Kirol oso garestia da, eta beharrezkoak dira babesleak, bestela ezinezkoa da goimailara heltzea. Kotxe eta gurpil onak izateko dirua behar da.

Odriozola: Entrenamenduei dagokienez, berriz, oso gutxi entrenatzen dugu. Larunbatean bada lasterketa, ostegun gauean esaten dizkigute zein diren igaro beharko ditugun zatiak, orduan ostiralean buelta bat ematen dugu oharrak hartzeko, eta gero hurrengo itzulia lasterketa izaten da. Beraz, zatiak ez ditugu entrenatzen, ezin dira. Hala, aurretik hartutako oharrek izugarritzko garrantzia dute, horiekin egiten baitugu lan.

## Nondik eskuratzen dituzue maila horretan lehiatzeko kotxea eta giza baliabideak?

Odriozola: laz gure babesleari esker maila altuko Mitsubishi Evo 10 kotxea alokatzeko aukera izan genuen. Baina, aurretik gure ko-



Nerea Odriozola eta Jorge del Cid, Kataluniako Cervera herrian, maila nazionalako lasterketa bat elkarrekin aurrenekoz irabazita. **Nerea Odriozola**

txearekin ere aritu izan gara. Azken hiru urtetan, mailaz igotzen joan garen heinean, prestazio ho-beak dituzten kotxeak alokatu ditugu. Autoarekin batera lan talde bat dugu, eta haiek arduratzen dira kotxea gordetzeaz, lasterketetara eramateaz eta prestatzeaz. Beraz, gu lasterketara heltzen gara eta prest izaten dugu lehia-tzeko. Arazoren bat izanez gero bertan izaten ditugu mekanikoak laguntzeko prest.

### **Espero zenuten Espainiako Lurreko Rallyen Txapelketan bigarren geratzea?**

Del Cid: Ez, maila altua dago, aurkariak aurrekontu handiagoa dute, kotxe hobekak. Ondo hasi genuen denboraldia, baina kolpea jaso genuen, enbragea puskatu zitzaigun beste lasterketa batean eta aldapa gora jarri zitzaigun. Baina gero garaipenak lortu genituen, eta horrek puntuak eman zizkigun sailkapenean gora egiteko.

### **Zailtasun tekniko handiak izan zenituzten azken proban, zer gertatu zen?**

Odriozola: Lasterketa amaitzeko helmuga igarotzea ez da nahikoa, ondoren leku zehatz batera heldu behar izaten dugu kotxearekin inongo laguntzarik gabe. Hala-ber, zatia nahiko larri amaitu genuen kotxeak huts egiten zigulako, hala ere, amaiera lekura helduko ginelakoan geunden. Baina, hamar kilometro inguru falta zirela bidean gelditu egin ginen, ez aurrera ez atzera. Iritsi ezean puntuak galduko genituen eta horrek txapelketako podiumera igotzeko zailtasunak ekarriko zizkigun. Azkenean, nola edo hala lortu genuen amaierara heltzea.

### **Nola uztartzen dituzue eguneroko bizitza eta bidaia?**

Odriozola: Bi egun soilik igarotzen ditugu lasterketan eta prestatuntzan. Niri lanean lagundu egiten didate ordu eta egun horiek hartu ahal izateko edo nire

lankideren batek txanda aldatzen dit behar izanez gero. Bestalde, bi seme ditugu eta ezin ditugu urteko lasterketa guztietara eramanez eskola dutelako. Nire ahizpak eta aitak laguntza handia ematen digute, eta ez dugu arazorik.

Del Cid: Udan geurekin eramaten ditugu bi semeak, gustura etortzen dira, gainera. Oso zaleak dira.

### **Zein dira zuen hurrengo proiektuak?**

Del Cid: Oraindik ez dago ziurtatuta baina pentsatzen dugu aurtengo Espainiako Lurreko Rallye Txapelketan parte hartuko dugula. Ez dakigu zer kotxerekin eta nola, baina uste dugu berriro ekingo diogula denboraldi berriari.

### **Zein da zuen anekdota gogoangarriena?**

Odriozola: Talde polita osatzen dugu Espainia osotik doazenek eta Euskal Herritik goazenok. Giro ederra dugu eta asteburu ederrak pasatzen ditugu elkarre-


kin, ez bakarrik afizio honek elkartzen gaituelako, azken batean familia eder bat osatu dugulako. Del Cid: 16 urterekin hasi nintzen kopiloto, eta nire lehen lasterketan, Lugon, zazpi urteko ume bat hurbildu zitzaidan sinadura eske. Harrituta gelditu nintzen; ez ninduen ezagutzen eta nigana etorri zen.

Odriozola: Jendeari oso deigarria egiten zaio kotxean daramagun publizitatea: 'La Rana Mary' izena eta igelaren irudia. Jendeak izen horrekin ezagutzen gaitu.

### **Eta anekdotarik txarrena?**

Odriozola: Aurten Nafarroako lasterketa batean hartu genuen kolpea. Elkarrekin hartzen genuen lehena zen, eta oso gogorra izan zen, txilinbuelta eman genuen. Orain dela bi urte ere txapelketa irabazteko zorian gelditu ginen. Aukerak genituen azkenengo lasterketara berdinduta iritsi ginelako baina gupil bat tolestu genuen eta ezin izan genuen bukatu.✱

# Munduaren istorioa abestuz

Musikaren bidez kultura desberdinetako errealitateak islatzen dituen GenVerde taldea Soreasun izango da, eta kontzertuan parte hartuko dute Iraurgi Ikastetxeko 80 ikasle inguruk.  Ainitze Agirrezabala

**M**usikaren, koreografiaren eta kantuaren bidez, bakea, elkartasuna eta senidetza bezalako baloreak transmititzea xede duen GenVerde taldea Azpeitian izango da, *On the other side* kontzertuarekin. Bost hizkuntzatan abestutako 15 kantuk kultura desberdinetako errealitateak islatuko dituzte, Iraurgi Ikastetxeko eta Donostiako Larramendi Ikastetxeko 100 ikasleren parte hartzearekin.

## Aldaketaren beharra

Kontzertuen aurreko hiru egunetan, Iraurgiko DBH 3 eta 4 mailako eta Batxilergoko ikasleek kantua, antzerkia, perkusioa eta dantza lantzeko tailerrak egingo dituzte, ondoren, ikasitakoa kontzertuan xertatzeko. Abesti gehien letrak euskarara itzuliko dituzte pantaila batean, eta kanta baten leloa euskaraz abestuko dute.

Argentina, Brasil, Txile, Hego Korea, Ekuador, El Salvador, Eus-

## III DATUAK

III **Zer.** GenVerde taldearen 'On the other side' kontzertua. III **Eguna.** Martxoak 25 eta 26 (zapata eta igandea). III **Ordua.** Zapataun 20:00etan eta igandean 17:30ean. III **Tokia.** Soreasu antzokia. III **Antolatzailea.** Iraurgi ikastetxea, Udalaren laguntzarekin.

kal Herria, Espainia, AEB, Ipar Irlanda, Italia, Malaysia, Mexiko, Panama eta Portugalgo 19 emakumez osatuta dago GenVerde. 50 urteko ibilbidea dute, eta haien mezua da "munduak aldaketa behar du eta gu martxan jartzen bagara aldaketa hori egin dezakegu". Pop-rock doinuekin beste aldean dagoenaren begiekin begiratzen denean aurkitzen den munduaren istorioa kontatuko dute.

Ikuskizunean lortutako irabaziak Betharram eraikina berritzera bideratuko dituzte.\*

## III 'ON THE OTHER SIDE' KONTZERTUA

**100** ikasle. GenVerde taldearen kontzertuan hartuko dute parte Iraurgi Ikastetxeko eta Donostiako Larramendiko ikasleek.

**12** euro. Hilaren 25eko eta 26ko emanaldietarako sarrera 12 euro ordaindu beharko dute 18 urtez gorakoek; 8 euro gainerakoek.\*

## III BESTERIK

**1** Errime eta Ruper Ordorika laz Sorkuntza Bekaren laguntzaz ateratako maketa aurkeztuko du Azpeitia eta Zarauzko kideek osatzen duten Errime taldeak. Oñatiarrak, berriz, 'Guria Ostataua' bakarkako 13. lana aurkeztuko du.

III **Eguna.** Martxoak 11 (zapata).

III **Ordua.** 22:30 III **Tokia.**

Sangustin. III **Sarrera.** 10 euro

III **Antolatzailea.** Kulturaz.

## 2 'Idiot Txou!' antzerkia

Zuzeneko irratsaio bat aitzakia hartuta kazetaritzaren eta gaurkotasanaren umorezko errepasoa egingo dute Hasier Ormazak, Josean Bengoetxeak eta Dorleta Urretabizkaiek.

III **Eguna.** Martxoak 31 (ostirala).

III **Ordua.** 22:00. III **Tokia.**

Soreasu. III **Sarrera.** 10 euro.

III **Antolatzailea.** Kulturaz.\*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.eus/agenda](http://uztarria.eus/agenda)



Gen Verde taldeko kideak. III Pierpaolo Pernici

**IKA**  
argi lanak s.l.  
Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71  
ikaargilanak@gmail.com www.ikasistemak.com  
20730 AZPEITIA

Lurralde batek industria bultzatzea aberastasuna eta enplegua sortzeko.

Hori ekonomia da.

**ORAININDUSTRIA4.0**  
Laugarren industria-iraultzarako prest

**ORAIN EKONOMIA**

Gipuzkoako  
Bazkidearen  
Erakundeak  
Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

[gipuzkoa.eus/industria4-0](http://gipuzkoa.eus/industria4-0)

## LOKALA SALGAI/ALOKAGAI



Erretiroa dela eta  
100m<sup>2</sup>-ko lokala Landetan.  
Elektrizista negoziatorako  
erabilia izan dena.

**HARREMANETARAKO: 656 785 802**



Belaunaldi aldaketa dela eta,  
Oñatz Gain soziedadeko kide berria  
izateko aukera paregabea.

- Estalitako hiru jangeletan eta kanpoko zelaian dituen mahaletan 120 lagunentzako tokia. Frontoia ere badu.
- Bazkidelzaren sarreraren prezio erakargarria eta ordaintzeko erraztasunekin. Prezio bereziak taldeka datozenentzat.

Interesatuak deitu 678581441 edo 678780828 telefonora.

Jarri hemen  
zure publizitatea

HITZ GEZIDUNAK

	Ornodun urlehortar		Deitura		Moztu		Urtaro beroa		Ekartzen duena
	Pasabide		Arabiako		Osmioaren ikurra		... egina, hordituta		
	Esanaraziak								
	Non atzizkia								
Izena		Gabarra txikiak			Kontso. errepikatua			Bokala	
Gauzatu		Trebeak			Azaroa			Baleuka	
				Bokal errepikatua			Bromoaren ikurra		
				Pl. musika tresna			Gidaliburuak		
Sodioaren ikurra			(Infin.) Lisatu			Talde terrorista			
Gaizki esan zale			Sufrearen ikurra			Emakume izena			
Kobaltoaren ikurra			Irain egin						Musika nota
Nafarroako udalerria			Erdian du Kanadak						
					Biloa			Kontso-nantea	
					Bokal mehea			Bokala	
Musika tresna						Suari dariona			

Egilea: Luma

\* Musika irakasle azpeitiarra

SUDOKUA

			1		9		5	
6				7		1	8	
	1			6				9
4					3			8
1		3				2		6
2			4					3
5				3			6	
	4	7		5				1
	3		8		1			

# IRAUR

## MASAJE - OSTEOPATIA

Euzburuko Errebole 18, 4lea  
Mug. 636 799 376

- Kirol Masajeak
- Drainadura linfatikoa
- Dinetako erreflexologia
- Masaje terapeutikoak

- Osteopatia
- Estrukturala
- Digestiboa
- Garezurrekoa

### |||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Martxoak 22 (asteazkena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jeroqlifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



### |||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

**1** ASMATU DITUZTE

**2** LAPURDITIK DATOZ BI

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

#### |||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

A	E	K	•	A	N	I	R	A	K	O	•
L	•	A	E	L	I	•	A	N	A	I	V
•	U	D	I	N	A	I	R	A	•	C	•
E	L	I	L	A	Z	I	A	E	S	I	M
L	A	L	•	A	S	L	I	•	A	N	•
R	•	B	I	H	I	B	I	•	N	E	G
A	•	K	K	•	K	A	L	A	•	I	•
K	A	N	A	S	A	R	A	E	•		
E	I	G	A	R	O	B	I	D	E		
•	U	•	E	•	A	•	I	•			

SUDOKUA

5	7	2	1	7	8	6	9	3	6	9	8
1	6	3	2	5	7	6	7	8	4	7	8
4	6	8	7	3	6	1	9	3	7	5	2
3	1	5	6	9	4	8	7	2	7	8	2
6	4	6	5	2	7	8	5	2	4	6	1
8	7	8	2	1	3	9	7	8	4	3	9
9	7	1	2	5	6	8	4	3	9	7	1
6	5	9	3	7	4	1	8	2	7	1	8
2	3	8	4	1	2	9	6	5	7	1	2

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

**1** Kabina

**2** Zozketa

#### |||UZTARRIAREN OTSAILEKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



**Kontxita Imaz**  
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 191. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian lehiaketaren irabazlea, Kutxilloren oparia eskuetan duela.



**Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak**

Etxeko berezitasuna:  
**Ezkur urdalazpliko Iberikoa**

Eñaut: 658 79 14 19  
Oier: 618 24 01 73  
kutxillo@gmail.com  
Damao Azkue 6

## ELKARRIZKETA DIGITALA | Edurne Mendizabal eta Haizea Egiguren

# “Zailtasunak zailtasun, garen modukoak izatea eta nahi bezala bizitzea merezi dugu”

Arremanitz kooperatibako kideak dira, Harremonak egitasmoaren arduradunak. Azpeitiko Udaleko Parekidetasun Sailak sustatuta hezkidetzatza, tratu onak eta sexualitate gaiak lantzen dituzte. Harremonak barnean dago Plax! sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua. Aurrez aurreko zerbitzuan Edurne Mendizabal aritzen da, hilean sei orduz, Sindikatu Zaharrean.

**Zuen lanagatik bitxikeria asko izango dituzue. Egin dizueten kontsultaren bat partekatuko?**

Bitxikeriak ugari. Adibidez, 80 urteko gizon batek galdetu zigun zer egin behar duen ligatzeko. Kitoria non dagoen eta nola funtzionatzen duen jakin nahi duen amonarene etorri zaigu. Edo mutil gazteekin txortan egiten duen emakume heldu bat; aplikazio bidez gazteekin geratu eta kotxean mendi inguruan aritzen zena. Aniztasun intelektuala duen bikote heldu bat...

**'Armairutik ateratzeko' pausoa eman nahi dut. Beldurra dut etxeok, lagunek... nola hartuko duten. Zer aholku ematen dizkidazue?**

Sekulako poza ematen digu gal-

dera horrek. Pertsona orok dugu armairua eta denen alde ari zara. Pausoa emateak beldurrak pizten dizkigu; onartua ez izateko beldurra, bereziki. Garrantzitsua da zuk zeuk onartzea. Uste baino aldeko jarrera gehiago topatuko dituzulakoan gaude. Maite zaituztenak hor daude eta kontrako jarreraren bat izanez gero ere zer? Zailtasunak zailtasun, garen modukoak izatea eta nahi dugun bezala bizitzea merezi dugu.

**Harreman askeak sanoak direla uste duzue? Zein da horiek irauteko errezeta?**

Zer da harreman askea? Bikotetik kanpo goxamen harremanak izateaz ari bazara, noski izan dai-



Egiguren eta Mendizabal. **Uztarrria**

tekeela halako harreman bat osasuntsua (edo ez). Dena bezala, ez da hain garrantzitsua zer egiten dugun, nola egiten eta bizi dugun, baizik. Ez dago errezeta magikorik irauteko, norbera eta besteak zaintzeak beti laguntzen du.

**Nolakoak dira egungo gazteen harremanak?**

Oso galdera ona da, baina ezinezkoa da lau lerrotan erantzutea. Ikerketak aztertu beharko genituzke horretarako. Halere, gure inpresioa da oso pertsona eta harreman anitzak daudela eta hori ospatzekoa da. Esan beharrik ez dago harremantzeko moduak asko aldatu direla. Batetik, jendarte eraldaketan urratsak ematen ari gara, feminismoak eta LGBTQ taldeak ekarpen garrantzitsuak egin dituzte. Bestetik, Internet, sare sozialak... azaldu dira eszenan. Horiek aukera ugari ematen dituzte ligatzeko, kortejatzeko, goxatzeko... inoiz baino errazago suertatu daiteke. Sare sozialak erabilerak okerraz asko entzuten dugu, eta hala da. Horiek ondo erabiltzea eta ematen dizkiguten aukera esanguratsuak baliatzea garrantzitsua da. **Uztarrria**

## EFEMERIDEAK

# 1870

**Herriko haurren lehen eskola.** Zabaldu zuten.

# 1927

**Joxe Lizaso.** Bertsolaria jaiotzen, eta 2009ko apirilaren 1ean.

# 1987

**Pako San Sebastian hil zen.** Luz Ardiden (Frantzia) inguruan, teleaulkia hautsita.

# 1991

**Xabier Madina.** Slalom proban munduko errekorra egin zuen, buru elbarritasuna dutenetan, 2,27rekin.

**Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

**Egilea:** Imanol Elias Odriozola.

**Argitaratzailea:** Uztarrria. **Uztarrria**

## BIDEOAK



**'Bota lasai!' kale inkesta.** **Uztarrria**







# Denbora galdu gabe

Lanean eta lanetik kanpo, ez da geldirik egotekoa Iñigo Iriondo. “Atsedena” gero eta gehiago behar duela dio, baina ez du aspertzeko tarte handirik. 📧 Mailo Oiarzabal

**A**urpegi aski ezaguna da Azpeitian Iñigo Iriondorena (Urrestilla, 1962). Urteak daramatza Udalean lanean eta, gainera, kalean eta jendaurrean aritzea dagokien lanak betetzen. Jardun publiko horretaz haragoetaz hitz egin du oraingoan Uz-tarriarekin.

Urrestillako Larrañaga baserrian jaio zen, gaur egun izen bereko hotela dagoen etxean, “ez ospitalean eta ez beste inon”, garai hartan ohikoa zenez, bestalde. Txikitako oroitza-pen “gutxi” dituela dio. Haurtzaroa gertaera lazgarri batek markatua du, izan ere: amaren heriotza. “Ama gazterik hil zen eta horren ondorioz aldaketa handiak gertatu ziren gure etxean”. Besteak beste, Iñigo bera Azpeitira jaitsi zen bizitzera, izeko baten etxera; 11 urte zituen. Ordurako Azpeitian bertan zebilen eskolan, Betharramdarren ikastetxean. Izebarena bizitzera joan zenean, berriz, ikastolara pasatu zen, Loiolara; han bukatu zuen bosgarren maila eta han osatu zituen oinarrizko ikasketak. Gero, Azkoitiko Lanbide Heziketako eskolan hasi zen, *profesionalean*. “Leherketa abisu ugari eta fundamentu oso gutxi zegoen garai hartan han. Urtebete pasa egin eta uztea erabaki nuen, batere fundamenturik ez zegoelako; eta neu ere ez nintzen oso ikasle ona”.

Ikasketak utzita, 16 urterekin lanean hasi zen Iriondo gaztea. Aulkientzako zumitzezko ipurdiak egiten zituzten lantegi batean ibili

zen aurrena, Kaminbururekin. 18 urte egite-kotan zela, berriz, Hernanin hasi zen lanean, anaiarekin, egunkariak banatzen. Horrela atera zuen bizimodua soldaduska egiteko sasoa iritsi bitartean. Katalunian egon zen soldadu, Bartzelonako Sant Boi de Llobregat herrian. “Gauza handirik ez” zuela egiten dio, soldaduska gogora ekarrita. “Ni ondo egon nintzen, gehien bat bulegoko lanak egitea tokatu zitzaidan eta. Makinaz idazten ikasi nuen, behintzat”.

Soldaduska bukatu eta etxera itzulita, lan bila hastea tokatu zitzaion berriro. Medikuntza prebentiboko liburuak saltzen ibili zen, baita aseguru saltzaile ere. 22 urterekin, berriz, Ertzaintzarako plazak atera zituzten eta hor eman zuen izena; hamar hilabetez egon zen ertzainen formakuntza zentroan, Arkautin. Ertzaintzan ez zuen plazarik lortu, baina bai Azpeitiko Udaltzaingoa, 23 urterekin.

## “Beldurra” ematen

Hiru urte bakarrik bete zituen udaltzain postuan Iriondok, baina Azpeitiko Udalarekin izango zuen harreman luzearen hasiera besterik ez zen izan udaltzain garaia. Izan ere, harezkeroko eta gaur arte, udal langilea izan da beti. Obretako ikuskatzaile lanak egin zituen; atezain edo kontserje lanak ere bai, udaletxean. Udalak Urola kalean biltegia jarri zuenean, berriz, hango ardura egokitu zitzaion. Azken urteetan udaleko jakinarazle lanak

bete ditu, beste eginbehar batzuk ere izan dituen arren.

Jakinarazle lanak medio, hauteskunde bezperetan bera gerturatzen ikustean batek baino gehiagok “beldurra” sentitu izan duela onartzen du, umorez. “Ilobak behin esan zidan, txantxetan, garai hartan Azpeitian beldur gehien eragiten zuen pertsona nintzela”. Izan ere, urte dezentetan bera bakarrik aritu da lan horretan, baina badira pare bat urte jakinarazpen lanak bi lankiderek banatzen dituela, “niretzako ja lan gogorra delako”. Lanarekin lotutako pasadizoren bat kontatzeko eskatuta, “denetarik” egokitu zaiola dio Iriondok, “irainak, mehatxuak...”. Jakinarazpenak banatzerakoan beti soinean eramaten duen kaskoa, ordea, ez du arrazoi horrengatik erabiltzen. “Hori motorragatik da –dio, irribarrez–. Askotan tokatzen zait gelditzea, baina oso tarte laburrerako, eta ez dut kentzen kaskoa. Gainera, *bluetooth*-a kaskoan bertan daramat, telefonoari erantzuteko. Bestela, kaskoa kendu eta jantzi, telefonoa hartu eta utzi, denbora asko galduko nuke. Eta ez zait gustatzen denbora galtzea”.

## Argazkilaritza, boluntariotza...

Lanetik kanpo, argazkilaritza da gaur egun nabarmentzen duen zaletasuna. “Emazteak Donostiako Kantuz Bizi abesbatzan kantatzen du, baita amaginarrebak ere. Haiekin jontzen naiz egiten dituzten txangoetara, eta

## |||MOTZEAN|||||

### TOKI BAT?

Larrañaga baserria.

### EGUNEKO UNE BAT?

Lanean gauzak ondo joaten direnean, etxera lasai aldegi-terakoa.

### JAKI BAT?

Gustatzen ez zaidanik ez daukat, baina bat esateko-  
tan, babarrun gorriak azare-  
kin.

### EDARI BAT?

Ura.

### KANTU BAT?

'Xalbadorren heriotzean'.

### EGINDAKO BIDAIA?

Tenerifera.

### EGITEKO BIDAIA?

Txilera, osabarengana.

### BETETAKO AMETSA?

Orain daukadan familia.

### BETETZEKO AMETSA?

Jubilaziora iristea.\*



**1.** Iñigo Iriondo lantokian, udaletxeko bosgarren solairuko terrazan, Santutxo auzoa eta Izarraitz atzean dituela. **2.** Galiziako itsasertzean, "munduko eserlekurik onenean". **3.** Kantuz Bizi korallarekin Soriano; beheko ilaran, eskubiko aurrena da Iriondo.

ahal dudan kontzertu guztietara. Eta abes-  
batzaren argazkiak eta bideoak nire kontu  
izaten dira. Etxean DVDetan grabatzen ditut.  
Neure kasa ikasi dut eta ez dira tekniko-tekni-  
koak, baina horiek eginez ari naiz experien-  
tzia hartzen".

Suhiltzaile boluntarioa ere izan da Iriondo,  
hogeitaz, iaz arte. Jarduera hori faltan bota  
baino, "pixka bat lasaitu" egin dela dio, lan  
horrek sortzen zion "tentsioa" alde batera u-  
tzita. Lasaitasun horretan eragina izan duen  
bestea izan da Azpeititik kanpo bizitzea. "Ba-

dira lau urte Donostian bizi naizela eta horrek  
bizimodua erraztu didala esango nuke, arin-  
du, lanarekiko deskonektatzen lagundu dida-  
lako. Hemen, jendeak ezagutu egiten zaitu  
eta, askotan, lanetik kanpo zaudela ere lana-  
rekin zerikusia duten kontuekin etortzen zaiz-  
kizu", azaldu du.

Iriondo ez da asteburuetan etxean geldit-  
tzea gustatzen zaien horietakoa. Urte askoan  
ibili da, eta oraindik ere jarraitzen du tarteka,  
kirol probetako helmugetan edota festa eki-  
taldietan babesleen arkuak-eta jartzen; "eki-

taldiak txikitatik gustatu" izan zaizkiola dio.  
Kotxe lasterketetan komisario ere aritzen da,  
emaztearekin batera, "normalean Lagun  
Artea eskuderiak antolatzen dituenetan".

Hala ere, egunerokoan gehien eskertzen  
eta behar duena "atsedena" dela dio. Fibro-  
mialgia gaitza diagnostikatu zioten orain dela  
bederatzi urte. Bizi-Bide elkarteko kidea da,  
eta dieta jakin bat eta zenbait tratamendu ja-  
rraitzen ditu. "Ez naute sendatzen, baina bizi-  
modu pixka bat hobea eramaten laguntzen  
didate", dio.\*


 Euskal Herria, 34  
20/30 AZPEITIA  
Tel: 943 15 16 40  
 Ekain  
ALBAITARI KLINIKA  
 Lamiak  
943 15 16 40


**ostadar optika**  
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS  
 Jose de Arrese, 17  
Tel. 943-810654  
AZPEITIA  
 Iñaki Oado, 28  
Tel. 943-851445  
AZKOITIA


**Xabier**  
margoak  
**Pinturak eta Parket Laminatuak**   
 Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ingurugiro Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	853297
DYA-Donostia	464622

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

## FARMAZIAK (MARTXOA)

1-6-11-12-17-22-29  
Jacome (Azpeitia).  
943 080258

4-5-10-16-23-28  
Eizagirre (Azpeitia).  
943 811274

2-8-15-20-25-26-30  
Beristain (Azpeitia).  
943 811949

7-13-18-19-24-27  
Aranburu (Azpeitia).  
943 811949

3-9-14-21-31  
Alberdi (Azpeitia).  
943 815974

GAUEZ, URTE OSOAN  
Beristain (Azpeitia).  
943 811949

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 29an izango  
dute hitzordua, 17:00etatik  
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALETXEA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## ODOLA BETI BEHAR.

Odol ateraldiek behera egin zuten iaz herrian, eta Azpeitiko Odol Emaileen Elkartek herritarrak, bereziki gazteak, animatu ditu odola ematera. Hileko azken asteazkenetan dute hitzordua.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak

# IKER ARAKISTAIN

Teheran, Iran

## “kontraste handiko herrialdea dun Iran”

Merkatu internazionalerako aholkularia da Teheranen, urte hasieratik. Egonaldia turismoa egiteko ere baliatu du. 📧 A. Agirrezabala

**Z**er dela-eta hago Iranen?

Enpresa Administrazion diplomatikoa eta Finantza eta Aktuaritza Zientzietan lizentziaduna naun. Etorkizunerako onena izango huna-eta, internazionalizazio programa baten bidez, Irango hiriburuan, Teheranen, nagon lanean. Merkatu internazionalerako aholkularia naun, Dubai-Gasteizko enpresa batean.

**Zer moduzko tokia duk? Eta jendea?**

Kontraste handiko herrialdea dun. Teheran, esaterako, negozio zentroa dun. Hiriburua iparraldean, erosalmen gehien dutenen bizilekua dun, baina hegoaldera joan ahala, bizimodu tradizionalagoa zagon. Hiriburutik kanpo bizimodua askoz ere xumeagoa dun, eta leku interesgarri eta historiko asko zauden. Jendea oso atsegina dun; beti laguntzeko prest. Kanpotarra izanik, galdera asko egiten zizkidaten, jakin-min handia ditin.

**Eta zer egin zaik zailena?**

Hizkuntza. Irango hizkuntza ofiziala, jendearen eguneroko hizkuntza, farsi edo persiarra dun. Nahiz eta negozio munduan ingelesa erabili, farsi hizkuntza ikasteko saiakeran ari naun, ate gehiago zabaltzeko asmoz.

**Euskaldunik topatu al duk hor?**

Bai, noski. Munduan ez dun egongo lekurik euskaldun bat bizi ez denik. Irandar gehienek Euskal Herria leku gatazkatsu bezala ezagutzen ditin.

**Iran aipatu eta badirudi gerrara joan haizela. Zer topatu duk?**

Zoritxarrez, gure gizartearen informazio falta handia zagon. Iranek petrolio eta gas naturalaren erreserba handiak dizkin. Horrek interes handiak sortzen dizkin beste herrialdeetara. Beraz, etsaien eta aliatuen arteko gerra ekonomiko-politiko agerikoa dun, baina ez zagon gerra armaturik. Maiatzaren 19an hauteskundeak ditin, erreformista/moderatu eta kontserbadoreen arteko norgehiagoka izango dinagu lehendakaritza lortzeko bidean. Irandarren artean zalantza dun nagusi.

**Inguruak ezagutzeko aprobetxatu al duk?** Asmoa hori dun. Asteburuak (osteguna eta ostirala) aprobetxatuko ditinat herrialdea ezagutzeko. Hilaren 20an Norooz urte berri eguna ospatzen dun eta inguruko herrialdeak bisitatzeko bidaia bat egitea dinat buruan.

**Hor noiz arte egoteko asmoa duk?**

Abuztura arte dinat lan kontratua, eta Azpeitira bueltatuko naun. Gero ikusiko dinagu...\*



1. Teheran, Irango hiriburua. 2. Iker Arakistain lankideekin, bere urtebetetze egunean. 3. Persepolis persiarren inperioko aztarnak.

5.650.530 kilometrora dago.



# Korrika

**B** adator, orain dela ia-ia berrogei urte etorri zen bezala, edo ez bezala, orduan ez genekien-eta zer zetorren, ez genekien ezer, hitza ezagutzen genuen, korrika eta presaka jaio ginela esaten ziguten etxean, lastrekan ibiltzen ginen, maratoi txiki, erdi eta osoen garaia zen, eta han ibiltzen ginen lastrekari itxuran azkueneko paretik loiolaraino eta azkoitiko txerloiraino, lastreka, eskolarik eman behar ez genuen egunetan, edo gauetan beharko nuke esan, egunez ikastolan eskolak eman eta gero euskarazko zenbait eskola emanez pasatzen genuen-eta denbora, gau-eskoletan, betharramdarretan, eta gazte ginen eta ez zitzaigun kostatzen, hau hori eta hura egiteko sasoi geneukan, eta egiten genuen, eta ez ginen haserre, eta gure esku zegoena egiten genuen, baina orduan, egun batean, institutuan irakasle zen igarate etorri zitzaigun notiziarekin, nik igarate daukat akorduan behintzat, kanpaina bat, gau-eskolekin batera zetorrena, aek erakundearena, dirua biltzeko kanpaina, korrika zuen izena, eta fermin muguruzaren kantuan bezala ibili ginen, zoratzeko moduan, pegatak ipintzen eta dirua biltzen, gutxi gorabehera, bateko eta besteko dendara sartu, sobrea utzi, euskararen aldeko kanpaina, dirua, sobrea jasoko genuela, kanpoko kristalera korrika txartela jarri, uzten zigutenean, nahi zutenean, eta zenbat ezin ententitu, eta zenbat azalpen, eta hura eskola ematea baino zailagoa zen, guk geuk ere ez genuen-eta kanpaina hura ententitzen, ondoko jaian azpeititik pasatuko zela karrera bat, baina ez zela ziklisten karrera bezalakoa, baten batzuk etorriko zirela, makila bat eskuan, eta herrian zeinek eman, zeinek kilometroa erosi ere antolatu behar genuela, eta zer zen zoramen hura, eta hórrela, halako batean, etorri zen delako jai hori, eta goizean goizago, ez plazan ez erdi kalean ez inon inor ez zebilen garaian etorri zen karrera hori korrika, eta bata besteari non ez dakidala ere eman zioten makila hura



|||||||miel a. elustond|||

||| Fermin Muguruzaren kantuan bezala ibili ginen, zoratzeko moduan, pegatak ipintzen eta dirua biltzen

eta erdi kalean behera joan zen, harako ongi etorri mr marshall bat izan balitz bezala, inork agurtu gabe, eta atzetik karabanarik ere ez zuela, morroi zoro bat bizikleta gainean zintzarri handi bat hartuta, tolon-tolon-tolon, jendea leihora bada ere arrimatzen ote zen, burrundara hura zer ote zen, dena zeharo alferrik, jendea lo, eta lau oilo lastreka, korrika lasaon badiolegiraino, haraino nik ikusi nuena, gero zestoarrak, eta ikusitako erretratueta, azpeitian baino harrera beroagoa egin zioten han korrikari, giroa kalean, gure herrian ez bezala, azpeitian ez zen-eta eguerdi arte girorik izan, eta errabots arkupetan txartelak jartzan, korrika haren materiala salgai, 'hi, eta nola esaten dek llaberue euskaraz?', 'jarrizak giltzatakkoa', eta holaxe, eta dirua bildu eta donostiara dirua, eta herrian esku hutsik gu.✘





LOAREN APNEARENTZAT  
ETA ZURRUNGENTZAT  
SOLUZIORIK ONENA

**MILAR**  
LARRAMENDI



Smart Retail  
sistema berria



Larra**iii**endi  
Sukalde Gunea



MILAR  
ZURR-AMETSEKIN SUKALDEA  
LA COCINA DE TUS MEJORES

**AZKOITIA** Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16  
Tel. 943 85 18 97 [www.milarlarramendi.com](http://www.milarlarramendi.com)



Astelehenetik ostiralera:  
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00  
Larunbata: 9:30 - 13:00



IGANDE ETA  
JAI EGUN GUZTIETAN  
GOIZEZ ZABALIK

JAKIRIK GOXOENAK  
PREZIORIK ONENETAN!

## GAZTA

txapeldunetan  
txapelduna

MAUSITXA (Elgoibar)

ESKAINITZA BEREZIA:

**Bertako intxaurrak**

**3,5 EURO/KG**



- Urdaiazpikoa
- York urdaiazpikoa
- Txorizo Panplona
- Txorizo iberikoa
- Xolomo freskoa
- Denetariko fruta eta barazkiak
- Garbiketako produktuak

**ZURETZAT**

**MEREZI DUZULAKO**



**Bai + ederrago**

**GUNE / SAIOKO**

**30€**

**BAKARRIK**

Izartxorik gabe, bonurik gabe

Zatoz gure zentrora:  
Idefonso Gurrutxaga 8 Behea - 20730 Azpeitia  
Tel. 943 04 44 22 - [azpeitia@nomasvello.com](mailto:azpeitia@nomasvello.com)

